

"Plataformakoa oso talde konpetente eta arduratsua da, bakoitza bere arloan jantzia"

Kirola • Plataforma berria prest dago Tabirako saskibaloia klubaren gidaritza hartzeko. Klubaren historian lehenengoz, presidente bi izango ditu: Hilario Perez eta Alicia Gomez. Plataformako kideek hainbat batzar egin dute egunotan, elkar ezagutzeko eta aurrera begirako ardurak banatzeko. • **26**



Jairik ez, baina auzoari bizipoza emateko ekitaldi sorta bai

Murueta Torren hainbat ekitaldi egingo dute zapatuan



Durangoko Murueta Torre Auzo Elkarteko kideek ezingo dituzte jaiak ohiko moduan antolatu. Dena dela, auzotarrei bizipoz apur bat emateko, ekintza sorta bat prestatzea erabaki dute. Zapatuan, bigarren eskuko merkatu txikia, umeentzako ginkana, errifa zozketa eta argazki zaharren erakusketa egingo dituzte. "Zapatuko ekitaldietara etortzera eta bertan parte hartzera deitzen diegu herritarrei", esan dute auzo elkartetik • **5**

Durangoko emakumeen kartzela:

"Preso zeuden emakumeek erresistentzia antolatu zuten espetxe barruan"



Maria Gorosari González EHUko irakaslea da eta baita Durango 1936 kultur elkarteko kidea ere. Durangoko emakumeen kartzelaren inguruan berbaldia eman du asteon Durangon. Faxistek kartzela zabaldu zuten 1939an Durangon, 'Las francesas' ezizenagaz ezagutzen zen eraikinean. 400 emakume pasatu ziren bertatik. Memoria historikoaren lan-ketan, emakumeen kartzeletan sufritutakoa isilarazia izan da urte askoan. • **2-3**

BEÑAT AIARTZA



gandarias
Interiorismo

LIKIDAZIOA jubilazioagaitik



Arkotxa kalea, 6 - 48200 Durango - info@mueblesgandarias.com - Tel.: 946 810 722



Maria Gorosarri Gonzalez

EHUko irakaslea / Durango 1936 elkarte

DURANGO | 1978

BEÑAT AIARTZA

"Alderdiek abandonatu egin zituzten emakume presoak, gizonezkoen borrokan zentralizatu zirelako"

Estatu osoan sorturiko kartzela sarea emakumeen kontrako errepresio faxistaren ezaugarrietariko bat izan zen. Durangoko kartzelatik 400 emakume pasatu ziren. Maria Gorosarri Gonzalezek gai honen inguruko berbaldia eskaini zuen egunean San Agustinen

DURANGO • JONE GUENETXEA

Memoria historikoaren lanketan, emakumeen kartzelatan gertaturikoa isilarazia izan da denbora luzez. Beste behin ere, ez dituzte emakumeak kontuan hartu. Maria Gonzalez Gorosarri EHUko irakasleak Durangoko emakumeen kartzelaren inguruko berbaldia eman du asteon San Agustinen. Gonzalezek azpimarratu du faxismoak ez zuela serio hartu andren konpromiso politikoa. Hain bizi baldintza gogorretan bizirik irauteko, elkartasun sareak sortu zituzten.

Faxismoan, gizonen eta emakumeen kartzelen ezaugarriak ez ziren berdinak. Zergaitik?

Gizonentzako espetxeak espetxe zirelako, eta andrentzako espetxeak, ostera, bestelako eraikinak: komentuak, gehienetan. Gizonek oheak zituzten, eta andrek ez.

Zergaitik ez zegoen "gerra preso" definiziorik emakumeentzat?

Faxismoak ez zuelako andren jarduna jarduera politikotzat hartzen. Orduan, haiek apurturiko moralitatea berrinposatu gura izan zieten. Andrak berriro hezi behar zituzten; katolizismoan, jakina.

Non zegoen, hain zuzen ere, Durangoko emakumeen kartzela? Noiz eta zelan bilakatu zen kartzela?

Nevers ikastetxea dagoen lekuan zegoen, 'las francesas' ezizenagaz ezagutzen zen eraikin horretan. Lehenengo, gizonezko presoak egon ziren han, 1937an. Faxistek Durango birrindu eta gero esklabu lez erabili zituztenak, hain zuzen ere, Durango berreraikitzeke. Ondoren, 1939ko azarotik 1940ko abendura bitartean, Karidadeko (Ospitaleko) mojen zaintzapean, espetxea eduki zuten.

Faxistek sakabanaketa politika martxan ipini zuten, emakume presoek harreman afektibo-politikorik eratu ez zezaten

Zelan garraiatzen zituzten emakumeak bertara? Nongo emakumeak zeuden han?

Durangoko espetxea txikia zenez, beste espetxe batzuetako presoak ekartzen zituzten, animaliak egondako trenetan. Estatu osoko andrak zeuden.

Emakumeak kartzela batetik bestera eramaten zituzten? Zergaitik?

Faxistek sakabanaketa politika martxan ipini zuten, emakume

presoek hartu-eman afektibo-politikorik eratu ez zezaten. Gainera, familiarengandik urruntzean, animikoki errazago etsiko zutela pentsatzen zuten. Andren konpromiso politikoa ez zuten serio hartzen.

Zein motatako presoak zeuden Durangon?

Faxismoak politikoki errepresaliaturiko andreak ziren: Errepublikaren bizitza politikoa (mitinetan, manifestazioetan...) edo gerran parte hartu zuten andreak zeuden.



PRISIÓN CENTRAL DE MUJERES EN DURANGO, entre 1936 y 1939.

duan, Durangon militarrek eta andrazkoak bizi ziren, batez ere. Andra horietariko batzuek babes-tu egin zituzten presoak, euren familiakoak etxean hartuta, edo etortzeko modurik ez bazuten, euren ezagutzen ez zituzten presoekin bisita eginda.

Nire birramama bertan egon arren, nik ez nuen ezagutu eta hark ez zien seme-alabei horretaz berbarik egin gura izan

Durangoko kartzelan egoniko emakumerik elkarrizketatu ahal izan duzue? Zein lekukotza kontatu dizute? Rosario 'la dinamitera', esate baterako. Ondo ezagutu zituen emakumeen kartzelak.

Nire birramama bertan egon arren, nik ez nuen ezagutu eta hark ez zien seme-alabei horretaz berbarik egin gura izan. Bilboko Orueko espetxean gabez kideak fusilatzeraz ateratzen zirenekoa bakarrik kontatu zuten. 2007an Madrilera joan nintzen, Rosario Sánchez Morari elkarrizketa egitera. Miguel Hernández olerkariak "Rosario Dinamitera" ezizena ipini zion. Rosario preso gaztea zen, oso kontzientziatua,



GEREDIAGA ELKARTEA.

politizatua. Nire birramama, oster, preso nagusia zen. 40 urte zituen, Mendizabal fabrikako behargina zen eta kanpoan bost seme-alaba utzi zituen, senarra Frantziako kontzentrazio-eremuetan zeukala. Preso gazteek, besteak beste irakurtzen erakutsi zioten espetxealdian.

Durangokoak beste emakumeen kartzela batzuen antzera funtzionatzen zuen? Zornotzakoaren antzera, esate baterako?


Durangokoa txikia zen eta, alde horretatik, ez zen horren gogorra. Zornotzako horren handia izan ez arren, beldurgarria zen. Preso asko gaitzen zen eta gaitzen ez zirenek oso itxura eskasa zuten. Tomasa Cuevasek, adibidez, ez zuen bere kide bat ezagutu!

Beste emakumeen kartzela batzuen inguruan ere ikertu duzu. "No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos" liburuan Saturrarango kartzelaren inguruko ikerketa egin zenuen

Eduardo Barinagagaz batera. Sei urtean 4.000 emakume baino gehiago pasatu ziren bertatik. Memoria historikoaren berreskurapenari lotuta, zergaitik behar izan da hainbeste denbora emakumeek bizitakoa ikertzen eta azaleratzen hasteko? Bide horretan, oraindino ere badago lana egiteko?

Preso zeudela, alderdiek abandonatu egin zituzten, gizonzkoen borrokan zentralizatu zirelako, edo ez zituztelako kide zat hartzen. Orduan, erresistentzia anto-

latu zuten espetxe barruan, eta, kartzelaldia amaitutakoan, sare horrei eskerrak, garaitutako gizar-te batean aurrera egin ahal izan zuten. Franco hil zenean, Tomasa Cuevasek kide horiekin guztiakin kontaktatu zuen, eta haien bizipenak grabatu zituen. Hiru liburuki dira eta autoeditatu egin zituen. Historialariek testigantza horiek eskura eduki dituzte eta aipatu ere ez dituzte egin. Ez gaituzte kontuan hartzen.



ELORRION, HURRENGO ERAIKUNTZA

Azkeneko biak!

4 gelakoak (143m²)

Terraza oso zabalak (106m²)

Garaje zabalak (37-86m²) + beste toki bat (28m²)

Lorategiagaz

Eraikinaren energia kalifikazio-etiketa: A

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673
www.zarateyelexpe.com
Bixente Kapanaga 19, Iurreta

"Honako konstatazio hau egin dugu: gaur egungo hezkuntza sistema agortuta dago"

Olatz Egiguren Enbeitak (Bilbo, 1968) Euskal Herriko hezkuntza sistema birplanteatzeko arrazoiak daudela dio. Gaiari buruzko diagnostia jaso du '(H)arian' dokumentuan

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Txostenak Plaza Hutsa mugimenduen eskutik ikusi du argia. Egigurenek horren lanketan parte hartu du, beste hainbat kideguz batera. Asteon aurkeztu dute dokumentua, Durangoko udal eskalategian.

Nondik sortzen da azterketa hau egiteko beharrezana?

Ezkerreko mugimendu independentistan hezkuntzari loturiko kezka nagusi bat sortu zen orain urte bi. Ikusten genuen gure herrian dauden hezkuntza sistemak sabaia jo dutela. Zaharkituriko ereduak darabiltzagu eta ez dira gizarteak dakartzan beharrezan berriei erantzuteko gai. Horrek gogoeta egitera eramán gaitu.

Eredu batzuk zaharkituta daudela diozu. Zeintzuk dira?

Gurean hiru hezkuntza sistema daudenez, diagnostia egiteko Ipar Euskal Herriko, Nafarroako Foru Erkidegotik eta Euskal Autonomia Erkidegotik abiatu gara. Hiru komunitate horietariko ezaugarriak askotariko ardatzetan aztertu ditugu. Adibidez, eremu bakoitzean pedagogiari, hizkuntzari, umeei eta trantsizio ekologikoari ematen zaien trataera aztertuta. Ardatz horiek guztiak kontuan hartuta, honako konstatazio hau egin dugu: egungo hezkuntza sistema agortuta dago. XIX. mendeko metodologekin eta pedagogiaz gabiltza lanean. Horrek ez du esan gura berrikuntzarik martxan ez dagoenik, lanketa interesgarririk ez dagoenik. Badaude halakoak. Hezkuntza komunitatea oso saiaturia da. Baina, orokorrean, burujabea ez den nazio bat garenez, gure hezkuntza sistema erabakiak hartu ezinik dabilela ikusi dugu. Bestalde, klase



ikuspegi batetik ere aztertu dugu auzia. Ikusi duguna da egungo hezkuntza sistemak liberalismoa elikatzen duela, horretarako diseinatuta dagoela. Eta, ostera, ez dagoela herritarren beharrezan

"Ikusi duguna da egungo hezkuntza sistema liberalismoa elikatzen diseinatuta dagoela"

"Euskal hezkuntza sistema propio baten eraikuntzak estatua behar du ezinbestean"

erantzuteko diseinurik. Genero ikuspegiari dagokionez, beste horrenbeste. Sistema patriarkatuaren zerbitzura diseinatuta dago. Testuliburuak edukietan eta curriculumetan ikusi dugu hori.

Zure iritzian, nondik hasi beharko lirake aldaketak?

Euskal sistema publiko berri bat sortzetik. Eta horren atzean burujabetza dago. Iruditzen zaiguna da herrigintzak eta estatugintzak eskutik joan behar dutela. Izan ere, hezkuntza sistema propio baten eraikuntzak ezinbestekotzat du estatua. Eta alderantziz. Horretara goaz, baina trantsizio bat behar dugu. Publikotasun eredu berria administrazioetatik herrirakoa barik, behetik gorako norabideagaz irudikatzen dugu.



Agintariek batzarrak egin dituzte herritarrekin. Azkena, San Agustin kulturunean.

Durangoko gobernu planaren %66 amaituta edo martxan da, agintarien esanetan

Urte bi bete dira legegintzaldia hasi zenetik, eta gobernu taldeak orain arteko ibilbidearen balantzea egin du

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durangoko udal gobernu taldeak adierazi du legegintzaldi hasieran markaturiko "135 neurri egingarri eta ebaluagarri" haietatik "%66 amaituta edo martxan" direla. Honako neurri hauek azpimarratu dituzte, besteak beste: Otamotzena parkea amaitzea, taxilagun zerbitzua eskaintzea, indarkeria matxistaren biktimen omenezko gun bat sortzea, kultur eskaintza zabaltzea, aurrekontu parte hartzailei ekitea, eta merkatu plaza birgaitzeko proiektua lizitatzea. Ima Garrastatxu alkatearen eta Julián Ríos alkateordearen esanetan, udalaren "norabide aldaketa sendotu egin da" urte bi hauetan.

Bestalde, bidean hainbat oztopo topatu dutela adierazi dute. Eraikin publikoen egoera, adibidez. "Urte luzeetan" eraikin publiko asko "txarto" mantendu izanaren ondorioz, gobernu taldeko kideek esan dute behartuta egon direla erabaki zorrotzak hartzera.

Garai jauregiaren, Tabirako igerilekueko aldagelen, Ezkurdiko kioskoaren, Urribarriko egoitza zaharraren eta Pinondo Etxearen egoerak deskribatu dituzte. Azken eraikin honena gehienbat, "2009an eginiko txosten batek egitura arazoz ohartarazi baitzuen". Orduan gobernuan zeuden eta gaur egun oposizioan dauden alderdi biei leporatu diete "herentzia" hori utzi izana.

Pandemiari dagokionez, gobernu taldeak esan du herritarrek "erdigunean" ipini dituela eta "bizilagunak ahalik eta gehien zaintzen ahalegindu" dela. Alde horretatik, 2.300.000 euroko Biziberritze Plan goraipatu dute.

Azkenik, etorkizuneko erronka estrategikoak izan dituzte berbagai. Airearen kalitatea hobetzea, 18 pisuko bost dorreen proiektuari alternatiba bat bilatzea, herriko kultura erreferentzialtasuna handitzea eta tokiko ekonomia hobetzea.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2021eko ekainaren 18a
19. urtea - 854. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Zapatuko ekitaldietara etortzera eta bertan parte hartzera deitzen diegu herritarrei”

Murueta Torre Auzo Elkarteko kideek egitarau txiki bat antolatu dute zapaturako. Umeentzako ginkana, bigarren eskuko merkatua eta argazki zaharren erakusketa egingo dituzte. Azoka 10:00etan hasi eta 15:00etan amaituko da



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Jairik ez, baina auzoari bizipoz apur bat, bai. Pedro Horrillo (Ermua, 1969), Txutxi García (Iurreta, 1968), Benito Hurtado (Bilbo, 1979) eta Nahikari Rueda (Durango, 1978) Murueta Torre Auzo Elkarteko kideak dira. Zapatuko ekitaldiekin bizitasun apur bat eman gura diote auzoari.

Asteburuko ekitaldiak ate joka daude. Gogotsu zaudete?

Nahikari Rueda: Dena prest daukagu. Berez, data hauetan ospatu beharoko genituzke auzoko jaiak, eta, egia esan, bagenuen zerbait antolatzeko gogoia. Osasun araudiak baimenduriko ekitalditxo batzuk antolatu ditugu. Adibidez, bigarren eskuko produktuen merkatua. Zerbait parte hartzailea izan daitekeela uste dugu. Bestetik, umeei begirako joko batzuk antolatu ditugu, probekin eta sorpresek osaturiko zerbait. Errifak ere salduko ditugu.

Eta zer diote auzokideek? Igartzen duzue kalera irteteko eta auzoan eragiteko grinarik?

Txutxi García: Auzotarrak gogotsu daude ekitaldietan parte hartzeko, baina, tamalez, gutxi batzuk baino ez dira auzogintzan eragiteko prest daudenak. Pena bat da hori. Ia 100 bazkide gara elkartean, eta 1.000

biztanletik gora gara auzoan. **N.R.:** Egia esan, elkartean parte hartzeko deialdia egin gura diegu auzotarrei. Eskuak eta ideia freskoak behar ditugu gauzak antolatzeko. Maila askotan lagundu daiteke. Bai ekitaldiak antolatzen diren bakoitzean bai urtean zehar.

Zelako auzo bizimodua duzue Murueta Torren?

Benito Hurtado: Seguruenik Txutxi da auzoa gehien bizi duen kidea (barrez). Jende asko bizi da auzoan, eta hartu-emanak etxebizitza bloke bakoitzaren arabera izan daitezke. Dena dela, gizartearen zein bilakaera duen kontuan hartuta, gatx dago auzo bizitza.

Elkartean parte hartzeko deialdia egin gura diegu auzotarrei; eskuak eta ideiak behar ditugu gauzak antolatzeko

NAHIKARI RUEDA

Pedro Horrillo: Nik esango nuke paella eguna izaten dela auzoa gehien batzen duena. Indar handiko eguna da. Egundoko giroa eta hartu-emanak sortzen dira. Aurten ezin izango dugu paella eguna egin.

Aurrera begira, zeintzuk dira elkarrearen erronkak?

N.R.: Oraingoz, pandemiaren aurreko egoerara bueltatzegaz konformatzen gara. Umeen Gabonetako Parkerako irteerak, apar festak eta halakoak berreskuratu gura ditugu. Zapatukoari begira, ekitaldietara etortzera eta bertan parte hartzera deitzen diegu auzotarrei. Gogotsu gaude.

Arrazakeriaren kontrako Munduko Arrozak asteburuan

Zapatuan kontzentrazioa egingo dute Ezkurdin, 12:30ean. Herri bazkaria norbere etxean egitera deitu dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Zapatuan arrazakeriaren kontrako Munduko Arrozak jaialdia egingo dute Durangon. Festibalaren 13. edizioa izango da eta aurtengoa ere mugatuta dator. Izan ere, ezingo da herri bazkaririk egin, jada sobera ezagunak diren arrazoiengaitik.

Hori dela-eta, jaialdia etxean ospatzera dei egin diete antolatzaileek herritarrei. Argazkiak atera eta, #MundukoArrozakDurango2021 traola erabilita, argazkiok sare sozialetan ipintzea eskatu dute. Bestalde, 12:30ean kontzentrazioa egingo dute Ezkurdin.



Munduko Arrozak jaialdiaren edizio bat, Landako Gunean.

Europako Mendietan hildakoak gogoratu dituzte, istripua gertatu eta 34 urtera

Garaiko eta Elorrioko herritar talde bat Asturiasen egon da, ezbeharrean hildakoak oroitzeko



GARAI • EKAITZ HERRERA

Garaiko eta Elorrioko herritar talde batek orain 34 urte Europako Mendietan (Asturias) gertaturiko ezbeharra oroitzeko ekitaldian parte hartu du. Besteak beste, Euskadiko Erreskate Txakurren Unitateko kideak egon dira han. Zoritzarreko gertaera hark Durangalde osoa astindu zuen.

1987ko ekainaren 12an gertatu zen istripua. Garaiko eta Elorrioko herritarrek ondo gogoan dute data mingarri hori. Egun hartan, eskualdeko zazpi lagun hil ziren Covadongako aintziretatik gertu, han inguruan galduriko ume bat topatzeko erreskate lanetan zebiltzala. Erreskate taldeak helikoptero istripua izan zuen. Bertan hildakoetatik hiru elorriarrak ziren, eta bat garaitarra.

Covadongako Enol lakutik gertu egin dute oroimen ekitaldia.

Mañariko mediku-kontsultategi berria ekainaren 30ean zabalduko dute

Egun berean Mañariko Herriko Taberna eraberritzen hasia aurreikusitako dute



Mediku-kontsultategi berriko irudia Evaristo Bustintza kaleko 19. zenbakian.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Mañariko Herriko Tabernaren kudeaketa berriro esleitu aurretik, eraberritu eta handitu egingo du udalak. Hain zuzen ere, gaur egun mediku-kontsultategiak hartzen duen espazioa tabernari gehituko diote. Horrek mediku-kontsultategia tokiz aldatzea eskatu du. Herriko erdigunean ipiniko dute, Evaristo Bustintza kaleko 19. zen-

Herriaren erdigunean, zabalduko dute kontsultategi berria, Evaristo Bustintza 19. zenbakian

Uztailetik aurrera, ohiko egunetan eskainiko dute zerbitzua: martitzenetan eta barikuetan

bakian. Amaitzen ari dira lokal horretako obrak, eta, udaletik jakinarazi dutenez, ekainaren 30eko eguaztenean hasiko dira mediku-zerbitzua azpiegitura berria eskaintzen. Uztailetik aurrera, ohiko egunetan eskainiko dute zerbitzua: martitzenetan eta barikuetan.

Behin kontsultategia tokiz aldatuta, Herriko Taberna eraberritzen hasiko dira.

Amaitu dituzte konpontze lanak Santa Ageda ermita ondoko aterpean

IZURTZA • J.D.

Santa Ageda ermita ondoko aterpea eraberrituta dago hiru bat astean konpontzen egon eta gero. Kalteak konpontzeko, hainbat lan egin dute teilatuan zein egituran.

Iazko urri-azaroko egun hai-zetsu batean, zuhaitz bat aterpe gainera jausi zen eta horrek eragin zituen kalteak. Udalak hainbat aurrekontu eskatu eta eurretari bat aukeratu zuen lanak egiteko. 15.609 euroko aurrekontuagaz eraberritu dute aterpea.

Iazko egun hai-zetsu batean, zuhaitz bat aterpe gainera jausi eta kalteak eragin zituen

Aterpeak hainbat erabile-ra du. Esaterako, herritarrek taberna ipintzen dute bertan Izurtzako jaietako egun batean.

Bertso saioa Mallabian, ekimenez beteriko beste asteburu bati ekiteko

'Durangaldea uztabarritzen' ekimenaren barruan, Iruri Altzerreka, Paulo Salterain, Unai Iturriaga, Ander Gerrikaetxebarria eta Onintza Enbeita arituko dira bertsoan Mallabiko anfiteatroan bertsozaleen aurrean

MALLABIA • J.D.

Durangaldeko Bertso Eskolak antolaturiko 'Durangaldea uztabarritzen' bertso zirkuitua Mallabira helduko da zapatuan. Bost bertsolari igoko dira Parkeko anfiteatroan: Iruri Altzerreka, Paulo Salterain, Unai Iturriaga, Ander Gerrikaetxebarria eta Onintza Enbeita. Eider Gallastegi arituko da gai-jartzaile lanean. Ekimena 18:00etan hasiko da eta edukiera 60 lagunetara mugatuko dute. Mallabikoaren ondoren, beste saio bi geratuko dira zirkuitua amaitzeko: Abadiñon uztailearen 2an, eta Durangon uztailearen 10ean.

Bestalde, domekan Arantza eta Pantxo taldeak kontzertua eskainiko du pilotalekuan, 12:30ean. Arratsaldean, haurrentzako *paintball* saioak egingo dituzte toki berean.

Astean zehar, beste hainbat ekimen egongo da. Besteak beste, Aritz Ganboa Arruazuko artzainaren *Bideak* dokumentala eskainiko dute egunean, Konzejuzarrean. Emanaldi bi egongo dira: 17:30ean eta 19:30ean.



Joan zen astean Euban egindako saioko irudia.

Baso-igel jauzkari espeziea Presazelain ere agertu da

Espezia hau Otxandion identifikatu duten bigarren gunea da

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko anfibioen egoera aztertu eta ugalketa errazteko 2016tik martxan den proiektuak aurkikuntza bitxiak uzten ditu aldiro. Proiektuko arduradunek martxoan jakinarazi zuten baso-igel jauzkaria identifikatu zutela lehenengoz Otxandion, Iñola inguruan sorturiko urmalean. Orain, beste urmael batean ere agertu da espezie hori, Presaze-


lai ingurukoan, hain zuzen ere. Nabarmentzeko moduko aurkikuntzak dira, baso-igel jauzkaria 'espezia zaurgarri' lez katalogatuta dagoelako Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan.

Horrez gainera, Presazelain beste espezie bat aurkitu dute lehenengoz Otxandion: uhandre marmolaria. Baina aurkikuntza hau ez da hain berezgarria, espezie hau ez dago arriskuan eta.



Presazelai inguruko urmaela.

Osasun gida



**Profesionalik
onenak zure
zerbitzura!**

 **Fisioterapia**
PSE: 119/13

Zainduz

**FISIOTERAPIA
OSTEOPATIA**

Ane Legorburu Munitxa

Trañabarren 13, 4. blokea
behea eskuma
MATIENA-ABADIÑO

944 657 132 - 686 906 374

 **Pedagogia**
PSE: 63/63

UGATZ

**UMEAREN
GARAPENERAKO ZENTROA**
Laguntza goiztiarra,
psikomotrizitatea,
fisioterapia, logopedia

Juan Olazaran, 1 behea
DURANGO
ugatz@hotmail.es
944 668 370 - 615 782 090

 **Fisioterapia**
PSE: 57/16



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muruetatorre, 2D
DURANGO

pzubizarreta@gmail.com
946 550 049 - 695 784 963

 **Optometria**
PSE: 162/13

Naia
Zabala
Azumendi
11587 kol. zk.



keinu

- Optimetrian teknika aintzindariak
- Kontaktologia • Haurren ikusmena
- Ikusmen terapia • Erreflexu primitiboak
- Syntonic fototerapia • SENA estimulazio neuroauditiboa • Orto-k

Arkaz 3 • 48240 Berriz • Tel.: 94 622 50 99
www.keinuoptometriazentroa.com

 **Podologia**
PSE: 148/13

PAUSOZ Podologia klinika PAUSO

Goiatz Murua
kol. zbk. 147
Ainhoa Elorza
kol. zbk. 238
Nerea Rodriguez
kol. zbk. 329

Kiropodia, onikopatia, alterazio
dermatologikoak eta ibilerako alterazioak

Telefona: 946203630
Monago Torre 4, behea 48200 durango

 **Odontologia**
PSE: 145/13



clínica dental hortz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

ODONTOLOGIA OROKORRA
INPLANTOLOGIA - KIRURGIA
ORTODONTZIA KONBENTZIONALA ETA
IKUSEZINA • ODONTOPIEDIATRIA - PADI
HORTZ-ESTETIKA
HORTZ-ESKANERRA

{Muruetatorre, 2C blokea, behea} DURANGO
Tel.: 946 819 951 Mug.: 717 194 454
uecdental@gmail.com

 **Odontologia**
PSE: 112/13



J.L. URRETA ZABALO
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
IMQ, PADI (umeen hortz programa)
Ortodontzia

Zumalakarregi, 18 - 1. ezk.
48200 DURANGO
Tel.: 946 812 200

 **Estetika**
PSE: 16/09

 **AGIRRE KLINIKA**
MEDIKUNTZA ESTETIKOA

www.medicinaesteticadurango.com

Laser berria:
Tatuajeak behin betiko kentzeko laserra

Obesitatea-zelulitisa, Laserra: depilazioa
(prezio bereziak), barizeak... Adinaren
kontrako tratamenduak: orbanak, botoxa...

Txatxiena, 6
48200 - DURANGO
Tel.: 946 810 387

 **Psikologia**
PSE: 62/11



JON ARRUBARRENA
PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa • Eskola arazoak

UMEAK - NAGUSIAK - BIKOTEAK

Frantzisko Ibarra, 6 DURANGO
jon@psikologo.biz - www.psicologo.biz
Tel.: 946 033 246 - 629 245 728

Berriztarrek kalera irten dute azken eraso matxista salatzen

24 urteko gizonezko bat atxilotu dute Berrizen, bikotekideari laban batez eraso egiteagaitik

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Joan zen astean, Ertzaintzak 24 urteko gizonezko bat atxilotu zuen Berrizen, bikotekideari laban batez eraso egiteagaitik. Eraso Basaurin gertatu zen.

Ertzaintzak Berrizen atxilotu zuen erasotzailea, haren etxean. Eraiketa saiakera, genero indarkeria eta urrutze agindua haus-

Berrizko Udaleko zinegotzi guztiek "elkartasun osoa" erakutsi diote biktimari

tea leporatuta atxilotu zuten. Epailearen esku utzi eta kartze-lan sartu zuten.

Erasoa salatzen, mobilizazio jendetsua egin zuten astelehenean Berrizen. Azeri Gorriak deituta, manifestazio zaratzua egin zuten herriko kaleetatik, eta gero, Berrizko Udalak deitutako elkarretaratzeagaz bat egin zuten. Horrez gainera, udalak "elkartasun osoa" adierazi dio biktimari.



Elkarretaratze jendetsua egin zuten astelehenean Berrizen.

The Riff Truckers eta Luhartz Apatako San Pedro jaietan

Apatamonasterioko jai batzorde "konfinatuak" egitarau zabala antolatu du 2021eko San Pedro jaiak ospatzeko



2019ko Atxondoko jaietako irudia.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Apatamonasterioko jai batzorde "konfinatuak" egitarau zabala antolatu du. Ekainaren 25ean emango diete hasiera jaiak, 20:00etan, Donien Atxa ipinita. Horren aurretik, txopo txikia prestatuko dute eta kalejiran joango dira plazara. Txopoa ipini eta gero, Luhartz taldearen erromeria egongo da.

Ekainaren 26an kuadrillen arteko paella jana egongo da auzoka, eta arratsaldean Jokairen zurezko tramankuluekin jolasteko aukera egongo da. The Riff Truckers taldearen kontzertuagaz emango diote amaiera egunari.

Ekainaren 27an artisau eta artisten azoka egingo dute, 11:00etan, plazan, eta 19:30ean Malas Compañías taldearen Zirkus antzezlan ikusteko aukera egongo da.

Ekainaren 29an emango diete amaiera jaiak, San Pedro egunean. Egun horretan, 14:00etan, jubilatuen bazkaria egongo da. Jubilatuek egoitzan jasoko dute bazkaria, eta etxera eramateko aukera izango dute.



Izetu Kultur Meta kale antzerki jaialdia Elorrioren

Ekainaren 23tik uztailaren 4ra bitartean, Elorrioko kaleak dantza, piroteknia eta antzerki ikuskizun bezalako dira

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorriok Izetu Kultur Meta kale antzerki jaialdiagaz emango dio hasiera udari. Ekainaren 23an hasi eta uztailaren 4ra bitartean, Elorrioko kaleak dantza, piroteknia eta antzerki ikuskizun bezalako dituzte.

Indi-Jones eta bere laguna eta Foca la carta ikuskizunekin emango

diote hasiera Izetu Kultur Meta jaialdiari. Lehenengo datorren asteko eguaztenean izango da, 17:30ean, San Joan ermitan, eta bigarrena 22:30ean, kiroldegi ondoko aparkalekuan.

Udaletik jakinarazi dutenez, ikuskizun guztiak doakoak izango dira eta herritar guztiei zuzenduta egongo dira.

Ekitaldi sorta pump-track pista inauguratzeko Atxondon

Atxondoko zirkuitu berria erabilgarri dago dagoeneko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ekainaren 24an, Atxondok Durangaldeko lehenengo pump-track pista inauguratuko du. Horretarako, ekitaldi sorta bat antolatu dute. 18:00etan, erakustaldi batez emango diote hasiera inaugurazio ekitaldiari. Musikagaz girotuta egongo da. Erakustaldiaren ondoren, 18:45ean, jokoak eta tailerrak egongo dira bertara-

tzen direnentzat. Pistari buruzko azalpenak ere emango dituzte, erabiltzaileek ahalik eta etekin gehien ateratzea ahal izateko. 19:30ean riderren txanda izango da eta 20:00etan zirkuitua modu librean erabili ahal izango da.

Atxondoko Udaletik azaldu dutenez, gazteei aukerak eskaintzea da euren helburua, kirola oinarri hartuta.



Pump-track pista Gaztetxearen ostean dago.



PUMA
Titanium 1.2 ecoboost MHEV 125cv
18.900€

FOCUS
1.0 MHEV 125cv
17.900€

KUGA
Titanium 1.5 ecoboost 125cv
22.500€

FORD KONDIA

Ford-en zure kontzesionario ofiziala
Iurretarako eta Durangorako.

EIBAR

Otaola Etorb., 22
20600 Gipuzkoa
T. 943 202 091

IURRETA

Santa Maña Auzoa, 19
48215 Bizkaia
T. 946 815 569



KONDIA
www.fordkondia.com

Eskaintza balioduna ekainaren 30era arte edo izakinak amaitu arte. Pavea Plana barne. Beste eskaintza edo deskontu batzuetara metatu ezin den sustapena. Zergak barne. Matrikulazio gastuak ez daude barne. FC Bankek finantzatua. Baldintzak kontsultatu. Erakutsitako argazkiek ez dute zertan bat etorri eskaintako modeloekin. ford.es

Abadetxeak Iurreta Plazaraturen lekukoa hartuko du etapa berri bati ekiteko

Abadetxeak "bizi propioa" hartu duela iritzita, ekimen herritarrak amaitutzat eman du bere ibilbidea. Abadetxea espazioak bere funtzioa "era naturalean" hartu duela azaldu dute



Iurreta Plazaratuk Abadetxea "herriari zabaldu" zion joan zen urrian.

IURRETA • JONE GUENETXEA

Iurreta Plazaratu dinamika amaitutzat eman du bere jarduna. Herrigintzatik eta herrigintzarako jaiotako egitasmoak ereindako haziak fruituak eman dituela ikusita, hiru urteren ostean Abadetxeari lekua egitea erabaki dute.

Iurreta Plazaratu dinamikako bultzatzaileek azaldu dutenez, herriko plazari eta herriko bizitza soziokulturalari bultzada emateko asmoz sortu zuten ekimena. Ibilbide horretan, hainbat ekintza antolatu dute.

Plazaratuk pauso garrantzitsua eman zuen joan zen urrian. "Plazan dagoen Abadetxea eraikina zabaldu zion herriari", diote Plazaratutik. Harrezkero, osasun egoerak utzi duen neurrian ekintzak sustatu dituzte, eta espazioaren koordinazioaz arduratu dira. Urritik hona

proiektu ugari jarri dute martxan. "Laixiar irratia martxan da azarotik, Gaztetxea izango dena prestatzen dabilza gazteak, liburutegia zabalik dago, Sorkuntza Ganbara abiatzera doa, eguaztenetan dantza saioak egiten dira, musikariak entseatzeko dabilza... Durangaldeko Biribilketa topaketa feministen aterpe ere izan da joan den asteburuan. Gainera, etorkizunean herriko talde eta pertsona guztien ideiei zabalik dagoen eraikina da Abadetxea", esan dute. "Proiektua eraldatuta, Abadetxeak bizi propioa

**Iurreta Plazaratu:
"Abadetxea izango da
gure elkargune fisikoa
eta sinbolikoa"**

hartu du, eta horregaitik, Iurreta Plazaratuk bere bidea amaitutzat eman duela jakinarazi gura diegu herritarrei. Abadetxeak hartuko du-eta horren lekukoa. Abadetxea izango da gure elkargune fisikoa eta sinbolikoa", gaineratu dute.

Datozen ekitaldiak

Bestalde, datozen ekintzak ere iragarri dituzte. Domekan bertso saioa izango da, hitanoz kantatuta. Miren Amuriza, Unai Iturriaga, Eli Pagola, eta Eneko Abasolo 'Abarkas' arituko dira bertsoan, Maite Berriozabalek gidatuta. 18:00etan hasiko dira kantuan. Ekainaren 24an eta 25ean argazki zaharren erakusketak egingo dute Abadetxean. Eta ekainaren 29an Mikel Antza idazleak *Arroz Urez* liburua aurkeztuko du.

Hiketlagunak, hitanoa ikasi eta erabiltzeko gonbita

Durangaldeko Berbalagunek gazteei zuzenduriko 'Poltsikorako Hitanoa' liburuxka kaleratu du

DURANGALDEA • AITZIBER BASAURI

Durangaldeko Berbalagunek Hiketlagunak egitasmoa ipini du martxan. Iurretan sortu eta Durangaldera zabaldu den ekimenak gazteak hitanoz berba egitera animatu gura ditu, hika berreskuratze aldera. Horretan laguntzeko, *Poltsikorako Hitanoa* liburuxka plazaratu dute, Badihardugu elkarteak (Oñati) sorturiko *Hika Poltsikaran* oinarri hartuta eta Eneko Barrutiak *Hitanoaren proposamena bizkaieraz* liburuan jasotako forma orokorrak batuta. Bestalde, ikasturte hasieran ikastaroak hasiko dituzte, Durangaldeko Berbalaguneko koordinatzaile Irati Anakabek eta Iurretan bidelagun den Ziortza Aldekoa-Otalorak azaldu dutenez.

Iurretar talde bat arduratuta zegoen hika galtzen dabilelako, eta horiek erakutsitako interesari

erantzunez hasi ziren lanean. Joan zen abenduan, 40 lagunek baino gehiagok (Iurreta, Abadiño, Durango, Zornotza, Galdakao...) eman zuten izena hitanoz berba egiten ikasteko eta praktikatzeko. "50 urtetik beherako euskal hiztunak dira, hitanoa erabiltzen ez dutenak, asko hogeitaka urteko gazteak", esan zuten. Gainera, "Berbalagun taldeetan bidelagun izan daitekeen profila aktibatuta", diote. Orain, hitanoa era naturalean erabiltzen duten bidelagunak topatzen dabilza.

Mankomunitateko presidente Mireia Elkoroiberen berbetan, "aisiaren esparruan, konfiantzazko giroan, hitanoa berreskuratze proiektu polita da. Euskararen erabilera bultzatzeko baliogarria". Egitasmoari ekiteko, bertso jaialdia egingo dute Iurretan, domekan.



Irati Anakabe, Mireia Elkoroiribe eta Ziortza Aldekoa-Otalora.

Zornotzako Jubilatuen Etxeak ateak zabaldu ditu berriro, 15 hilean zarratuta egon eta gero

Udalak hobekuntzak egin ditu kafetegiko eta jantokiko zerbitzuan. Tokiko produktuekin osaturiko menuak eskaintzen hasi dira. Astelehenean berreskuratu zuten zerbitzua

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako adinekoek zerbitzu bat berreskuratu dute asteon: Jubilatuen Etxea. Egoitza zarratuta egon da azken 15 hileotan, baina lanari ekin dio berriro. Espazioak, gainera, itxura berria du. Izan ere, Ainhoa Salterain Gizarte Ekintzako zinegotziak azaldu duenez, "aldaketa handiak" egin dituzte zerbitzuan. Taberna berri dute, eta goitik beherako aldaketak egin dituzte

jangelan. "Sukaldeko eskaintza berri dugu, kalitatezko eta gertuko produktuekin", esan du Salterainek. "Jangela eroso eta atsegin bat sortzea izan da asmoa", gaineratu du.

Andoni Agirrebeitia alkateak gogora ekarri du azken 15 hilabeteak "oso gaxkak" izan direla beharginentzat eta zerbitzua jasotzen duten herritarrentzat. Orain Jubilatuen Etxeari bere "esentzia" bueltatzeko sasoia de-

la adierazi du. Hori dela-eta, gainerako zerbitzuak eta espazioak berreskuratuko dituzte. Podologia zerbitzua, adibidez. Oraingoz, billar gelak eta irakurketa gelak zarratuta jarraituko dute.

Egoitza 10:30etik 20:00etara bitartean egongo da zabalik, astelehenean barikura. Tabernaren ordutegia apur bat murriztagoa izango da, 13:30etik 16:00etara zarratuta egongo da eta.



Tabernako beharginek astelehenean ekin zioten lanari.

EH Bildu: "Premiazkoa da lehen arretako osasun zerbitzua bermatzea"

Durangaldeko EH Bilduk agerraldia egin du Traña-Matienako Osasun Etxearen aurrean. Eskualdeko osasun zerbitzuetan "murrizketak" egiten ari direla diote



Durangaldeko EH Bilduko ordezkariak Traña-Matienako osasun etxearen aurrean.

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Ainara Otxotorena Mañariko alkateak eguazteneko prentsaurrekoan azaldu zuenez, lehen arretak "paper garrantzitsua" jokatzeko du osasun zerbitzuetan, eta ezinbestekotzat jo zuen herritarrei "zerbitzu duin eta iraunkorra bermatzea".

Egoera herrika

Naiara Bildosola zinegotzi abadiñarrak Traña-Matienako pediatra orain hiru aste jubilatuta zela, eta gaur gaurkoz berau ordezkatzeko "plangintzarik" ez dagoela kritika-

tu zuen, Traña-Matienako egoerak gainerako osasun zentron antolatari eragin diezaikeelako. Adibidez, Atxondokoari. Ane Intxausti zinegotzi atxondarrak azaldu du, orain arte Zelaietako pediatra astean birritan joan izan dela Atxondora. Baina orain, Traña-Matienako umeak artatzeari ekiten badio, Atxondoko zerbitzuagaz zer gertatuko den ez dakitela.

Koalizio subiranistako kideek beste hainbat arazoren berri eman zuten. Berrizko eta Zaldibarko osasun etxeek irisgarritasun arazoak

dituztela esan zuten, eta zornotzarrek, "anbulatorio berria izan arren", plakak egitera Durangora jo behar izaten dutela. Izurtzako eta Mañariko egoerei buruz ere, antzeko. Astean birritan izan ohi dute arreta presentziala, baina Otxotorenak "premiakoa" iritzi dio herri bi horietan zein eskualde osoan lehen arreta "duin eta iraunkorra" bermatzeari. Horregaitik, EH Bilduk mozioak erregistratuko ditu eskualde osoko bilkuretan, besteak beste Osasun Sailari lehen arreta indartzea eskatzeko.

Akordioa lotuta, Rothenbergerren bertan behera utzi dituzte grebak

ELA eta CCOO sindikatuek lan hitzarmena berritzeko akordiorako oinarria sinatu zuten astelehenean. LABek kontra egin du, "akordio hobea" lortzeko aukerak zeudela iritzita

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

Comisiones Obreras sindikatuak jakinarazi duenez, Rothenberger enpresako patronalak eta sindikatuen gehiengoak (CCOO eta ELA) lan hitzarmena berritzeko akordioaren oinarria sinatu zuten astelehenean. Hori dela-eta, beharginek bertan behera utzi dute aste honetarako programatuta zuten greba sorta. ELAk, CCOOk eta LABek hamar eguneko greba

hasi zuten ekainaren 7an. Baina, astelehenean, lehenengo sindikatu biek akordiorako oinarria sinatu zuten. LABek kontra egin zuen.

Akordiorako oinarriak Rothenberger enpresaren Abadiñoko eta Gasteizko lantegietako beharginen botoekin egin du aurrera. Lan hitzarmena eguneratzea eskatu dute egunotan, eta itun berriak euren aldarrikapenatariko batzuk jasoko ditu; adibidez, soldata igoerak.

LABen iritzia

LAB sindikatuak ohar batean esan duenez, lorturiko akordioak "lurperatu" egiten ditu negoziazioko hainbat puntu.

Adibidez, enpleguari eusteko klausularik ez dela jaso, eta Kontingentzia arruntengatiko bajen osagarriak jaso barik geratu direla dio. LABek gaineratu duenez, aurreikusitako 25 errelebo-kontratu barik, azkenean 18 onartu dira.



Rothenberger enpresako beharginen mobilizazio baten irudia.

'Durangaldeko transmaribollook zer?' jardunaldia Zaldibarko gaztetxean

ZALDIBAR • A.M.

Ekainaren 28a Sexu Askapenerako Nazioarteko Eguna da, eta, honen harira, Durangaldeko Ernaik 'Gazte Transmaribollook zer?' jardunaldia antolatu du eskualdeko "gazte transmaribollook arteko ezagutzan, saretzean eta aliantza berrien eraikuntzan" pauso berriak emateko. Horretarako, gazte antolakundeak tailerra antolatu du Zal-

dibarren. Zapatuan, ekainak 19, 11:00etan hasiko da, Zaldibarko gaztetxean. "Heteronormaren disidentzian kokatzen garen gazteok ezinbestekoa dugu elkartu, antolatu, eztabaidatu eta borrokatzen hastea. Euskal Herrian sortzen ari diren sare, espazio eta agenteekin aliantzak eraiki eta gure bizitzak, hautu eta identitateak erdigunera ekartzeko", azaldu dute Ernaitik.

Lan mundura begirako euskara ikastaroa antolatu dute Zaldibarren

ZALDIBAR • A.M.

Lan munduan euskararen erabilera sustatzeko ikastaroak antolatu dituzte Zaldibarren. Uztailaren 5etik 21era bitartean eskainiko dute ikastaroa, 17:00etatik 18:30era.

Ikastaroa pertsonak zaintzen, ostalaritzan edo merkataritzan lan egiten dutenentzat izango da. Izena emateko epea zabalik dago, ekainaren 30era arte.



'Durangon, Ortutik Plazara' dinamika, Baserritarren Plaza indarberitzeko

Baserritarrek eta udalak Produktu Egunak antolatu dituzte merkatua indarberitzeko



Atzo eginiko prentsaurrekoko argazkia.

DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Baserritarren Plaza indarberitzeko asmoz, 'Durangon, Ortutik Plazara' dinamika ipiniko dute martxan. "Tokian tokiko elikagaien kontsumoa eta Baserritarren Plaza bultzatu gura ditugu, Durangorentzat eta durangarrentzat daukan garrantziagaitik. Urte luze makaltzen joan den merkatua izan da, eta orain bultzada bat ematen ahalegintzen gabilta. Horregaitik, datozen hiletan Produktu Egunak antolatu eta hainbat ekoizle gon-

bidatuko dugu merkatu honetara, bertako kontsumoa suspertu dadin", azaldu dute udal ordezkariak.

Hori horrela, uztailaren 3an, irailaren 4an eta abenduaren 18an, Baserritarren Plazan erosketak egiten dituztenei gazpatxoa eta salmorejoa, piperrak eta Gernikako piperrak eta barazki krema eta salda banatuko dizkiete, hurrenez hurren. Horrez gainera, uztailaren 10eko, irailaren 18ko, azaroaren 13ko eta abenduaren 4ko azoketara inguruko ekoizle batzuk ere gonbidatuko dituztela jakinarazi dute Durangoko udalekoek.

Bestalde, udaletik nabarmendu dute lanean jarraituko dutela plaza berraktibatzeke, legegintzaldi honetan berraktibatu duten Baserritarren Mahaiaren bitartez.

Politikan

Jesica Ruiz
PSE-EE



Haitzuloetako gizonak kobazulotik irten dira

'Kondena', 'zero tolerantzia', 'injustizia', 'arbuioa' edo 'hiltzaileak' hitzak datozkit burura azken asteotan gertatutakoa ikusita.

Aspalditik ez ditugu hain egun tristeak bizi izan indarkeria matxistari dagokionez: Tenerifeko munstroa, alabak hil dituen amari min egiteko bakarrik, bikotekidea erail duen gaztea, labana bidezko eraso edo eraso homofoboa. Zoritxarrez, zerrenda horrek aurrera jarraitzen du.

Adituen esanetan, isolamenduak iraun zuen bitartean erasoak gutxitu egin ziren erasotzaileak asetuta zeudelako, bikotekideen gaineko erabateko kontrola zutelako. Orain, aldiz, lehen geneukan bizitzara itzultzen ari garenean, beren autoritarismoa berreskuratzen ari dira. Zer ari da sisteman huts egiten hori guztia garaiz geratu ezin izateko? Nola liteke oraindik ere gizonak emakumeak baino gehiago direla uste izatea? Nola pentsa dezakete haien jabetza garela?

Tristeza da arazo larri horren aurrean, oraindik gizar-tearen zati batek beste alde batera begiratzea. Beharrezkoa da familia, ikastetxe eta gizarte osotik irakastea gizona ez dela emakumea baino gehiago, eta emakumeok ez garela gizonak baino gutxiago. Izan ere, askori sinestezina iruditzen bazaigu ere, oraindik gizon eta emakume askok dituzte pentsamendu horiek.

Oraindik bide luzea geratzen zaigu, eta aurrera egiteko modua bidea denok batera egitea da.

Durungaldea asteen



Ainhoa Olasoren 'Hemen bizi da maitasuna' Aukera programarako hautatu dute

Durango (H)emen ikus-entzunezko eta arte eszenikoen sektoreetako emakumeen elkarteak sustaturiko programa da Aukera, eta aurten du lehenengo edizioa; euskal emakume zinemagileei film labur bat ekoizteko aukera eskaintzeko asmoa du, eta bost aukeratuen artean dago Ainhoa Olaso durangarraren Hemen bizi da maitasuna. Enara Garciaz batera ondutako proiektua da hau.

Bittor Arginzonizen Etxebarri jatetxea Europako hiru jatetxerik onenen artean

Atxondo Opinionated About Dining (OAD) gidaren arabera, Bittor Arginzonizen Etxebarri jatetxeak hirugarren postua lortu du, hau da, Europako jatetxerik onenen artean dago. Zerrendaburuan Kopenhageko (Danimarka) Alchemist jatetxea dago eta bigarren postuan Stockholmgo (Suedia) Restaurant Frantzén.

Eneko Atxaren Azurmendi jatetxea ere lehenengo hamabosten artean dago, hamahirugarren.

Iritzia

GUTUNA

Imajina ezazu zure lantokiko atean jotzen dutela. Guardia Zibila da eta zure bila dator. Imajina ezazu atxilotuta zaudela eta Madrilera eraman zaituztela. Imajina ezazu zure atxiloaldian mehatxatu egiten zaituztela, iraindu egiten zaituztela, fisikoki eta psikologikoki torturatzen zaituztela. Imajinatu sexu erasoak egiten dizkizutela. Imajina ezazu zelako hauskortasuna, zelako mina eta zelako beldurra sentitzen dituzun. Imajinatu zelako oinazea. Imajinatu bizitako horrek zelako arrastoa uzten dizun. Imajinatu gertaera lazarri horiek igaro eta 10 urtetara, orain berriro datozela zure atera, Audientzia Nazionalen epaitua izateko. Ostera ere Madrilera. Imajinatu ostera ere orduan bizitako torturak eta erasoak gogora datozkizula, berriro ere oinazea eta izua sentiarazten dizkizutela. Imajina ezazu epaiketa bati aurre egin behar izatea eta zure familia-bizitza apurtuko duen balizko kartzela zigor bati aurre egin behar izatea. Imajina ezazu bizitza honetan gehien maite dituzun horiengandik, jaio direnetik zaindu eta babestu dituzun zure seme-alabengandik, bereizten zaituztela. Imajina ezazu zure seme-alabak kartzela barruan eta hilean behin ordu batez soilik ikusi ahal dituzula. Saioa, Zornotzako elkarte eta mugimenduetan sozialki eta politikoki errotua dagoen emakumea. Saioa, norbanakoen, umeen eta familien eskubideen aldeko proiektuetan ama ekintzailea. Saioa, Altzoan hazkuntza taldearen ama sortzaileetako bat. Saioa, adiskidea, ama eta amakidea. Konpromiso eta borroka erreferentea. Saio, gure laguna. Altzoan hazkuntza taldeko amok Saioaren istorioa gure azalean bizi dugu, eta, horregaitik, gure elkertasun osoa eta baldintza gabeko babesa adierazi nahi diogu. Garai zailak datoz Saio eta bere familiarentzat, baina gu zutabe eta euskarri izango gaituzte. Zornotzako familia eta amok animatzen zaituztegu sortuko diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzea.

Estela Pradas Schiaffino eta Eunate Olarreta Irazabal,
Altzoan hazkuntza taldearen izenean

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, -IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tariteak barne).

MAKALLAU SALTSA

KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSA neren bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta.

Bakailao kozinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketak, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329

Eramateko edalontzi berrerrabilgarrien zerbitzua

Ikusi gure mapa

Antolatzailea

Laguntzaileak

Uda

GEHIGARRIA
2021



LG
Led 4K 55UP81006LA
- 124 x 79 x 26 cm
- Procesador Quad Core
- Sintonizador TDT2

P.S.P
749€

bazkidea bazara**

599€

150€

Conekta

Futbolarekin berriro konektatzen

Hipermerkatu

EROSKI
Abadiño

** Eskaintzak 2021/05/27tik 2021/06/16ra arte balio du. Kutxatik igarotzean, zure EROSKI club barilean sartuko dizugu, berehala, erositako produktuen deskontuaren zenbatekoa. Zenbateko hori hurrengo erosketetan truka dezakezu. Deskontu horrek ez du balio "azken unitateak" idatzita odierazitako produktuetan.

UDALEKUAK • JONE GUENETXEA

Ikasturte nahasi honen ostean, ume eta gazteek topera gozatzeko uda dute aurretik. Udalekuetan eskaintza zabala dute Durangaldean. **Berbaro euskara elkarteak urteak daramatza udako aisialdia euskaraz eskaintzen.**

Zein udalekutan arituko zarete begirale?

Ane Rafols: Aurten, iaz legez, udaleku irekietan arituko naiz. Asteleheneretik barikura izaten dira, goizetan. Eguzketan irteera egingo dugu eta horietan arratsaldean bueltatuko gara.

Leire Rodriguez: Ni Albeizera joango naiz, Arabara. Joan zen astean begirale guztiok aterpea ikustera joan ginen eta asko gustatu zitzaigun denoi. Herri txikia da, baina oso polita. 24 ume eta 4-5 begirale joango gara. LH 3. eta 4. mailakoak dira. Hamar egunerako joango gara. Egun guztiak antolatuta ditugu.

Txikitan urte osoa zain egoten nintzen udalekuetara joateko

ANE RAFOLS

“Ume askok ez dute inguru euskaldunik etxean, eta udalekuetako jolas eremuan euskaraz jarraitzeko aukera dute”

Ane Rafols Pacho (Durango, 1997) eta Leire Rodriguez Elgeta (Durango, 1998) prest daude uda honetan begirale legez aritzeko. Rafols udaleku irekietan ibiliko da. Rodriguez, ostera, Arabako Albeiz herrira joango da 10 egunetarako

**Iaztik aurtengo ediziora aldea egon da?**

A.R.: Iaz begirale bi egon ginen eta 16 bat ume, talde bitan banatuta. Aurten hiru talde izango dira, 5 edo 6 begiralegaz. Txikiak 3tik 5 urtera bitartekoak dira, eta nagusiak 6tik 10 urtera artekoak. Asteleheneren hasiko gara eta bost aste izango ditugu aurretik. Prest dugu dena.

Begirale izan aurretik, umetan udalekuetara joaten zineten? Zein oroitza-pen dituzue?

A.R.: Txikitan udaleku itxiren batera joan nintzen, eta gero ibiltarira ere bai. Urte osoa zain egoten nintzen udalekuetara joateko.

L.R.: Txiki-Txoko udaleku itxietan hasi nintzen eta 18 urte izan arte beste udalekuetara ere joan nin-

tzen. Gero, praktiketan joan nintzen, eta hortik aurrera begirale.

Udalekuek zer eskaini dizute?

L.R.: Askok ikasten dela uste dut. Zu zein mugaraino heldu zaitezkeen, adibidez. Udaleku itxiak 10 egunekoak dira, baina oso intentsoak dira eta oso hartu-eman estua sortzen da. Udaleku itxietara doazenez 8-9 urte dituzte. Polita da

gero urtean zehar kalean ikusi eta elkar agurtzea. Begiraleen arteko hartu-emana ere polita da.

A.R.: Udaleku irekietan apur bat ezberdina da, baina hor ere asko ikasten da. Oso adin tarte ezberdinak dira. Oso esperientzia polita da.

Aisialdia eta euskara uztartzea garrantzitsua da.

A.R.: Euskara aisialdian presente egotea garrantzitsua da. Ume askok ez dute inguru euskaldunik etxean, eta udalekuetan jolas eremu batean euskaraz jarraitzeko aukera dute. Gainera, ikastetxe askotako umeak joaten direnez, hartu-emana zabaldu egiten da. Hartu-eman bat euskaraz hasten baduzu, horrela jarraitu dezakezu.



Astolako igerilekuak
ekainaren 12tik
aurrera zabalik!



Abadiño
Elizateko Udala

6.000 m²-ko landa
Taberna - jatetxea terrazarekin

Atxondoko Udal Igerilekua


**2021 DENBORALDIA**

Ekainaren 24tik
irailaren 6ra
(biak barne).

Ordutegia:
11:00-20:00

SARRERA

- 4 urtera arteko umeak
debalde
- 5-17 urte bitartekoak
3,50€
- 18tik gorakoak 4,50€





Ezkerretik hasita Kepa Calvo, Gorka Eskauriaza, Aintzane Uribe, Rafa Iriondo eta Etor Akordagoitia.

“Erromerien bilakaera gidoi baten bitartez azalduko dugu, abestiak eta istorioak tartekatuta”

Luhartz taldea formatu desberdin batez bueltatuko da plazetara. Ekainaren 20an Landako Gunean izango dira, 18:00etan

MUSIKA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Luhartz taldea oholtzara bueltatuko da, ekainaren 20an. Oraingoan formatu desberdin batean. Domekan ekingo diote aro berriari, Landako Gunean. Antzinako berbenetatik oraingo erromeriarako istorioa plazaratuko dute, ikuspuntu xume batetik. 18:00etan izango da. ANBOTOK Rafa Iriondogaz berba egin du.

Luhartz ikuskizun berri batez bueltatuko da plazetara. Zer topatuko dute kontzertura doazenek?

Orain 40 urteko berbenetatik gaur egungo erromerietara egon den bilakaera kontatuko dugu. Nik ezaguturiko erronomia horiek gure ikuspuntutik azalduko ditugu. Erromerien bilakaera gidoi baten bitartez azalduko dugu, abestiak eta istorioak tartekatuta.

Luhartzek bizi izan dituen hiru etapak kontatuko ditugu ikuskitunean zehar, eta Euskal Herriko hainbat talderen inguruan ere berba egingo dugu. Gainera, talde

horietariko zenbait gonbidatu berezi ere izango ditugu.

Guretzat ohore bat da horiek gure proposamenari baietz esatea eta ikuskizunaren parte izatea.

Zelan bururatu zitzaizuen horrelako zerbait egitea?

Orain hiruzpalau urte, Kultura eta Transmisio tailerrak eman genituen Azokan, urte bitan. Hamabi bat abesti prestatu genituen tailer hauetarako, eta abesti bakoitzak bere istorioa zuen. Antolatzaileak pozik geratu ziren tailerrekin, eta baita bertaratu zirenak ere. Baina hortxe geratu zen dena.

Baina iaz, pandemiagaz, dena hankaz gora ipintzen hasi zen. Gure kasuan, lotuta genituen kontzertu asko bertan behera geratu ziren. Baina antolatzaile batzuek aurrera egingo zutela esan ziguten. Orduan, zer egingo genuen galdetu genion geure buruari, eta erreperitorioa apur bat aldatzea erabaki genuen. Azken finean, jendea gugaz dantza egitera dago ohituta,

eta ikusten genuen jesarrita egon beharko zutela kontzertuetan. Beraz, dantzan egitekoak diren abestiak kendu, gainerakoak jo,

eta tartean pare bat anekdota sartu genituen. Hainbat kontzertu eman genuen formatu horretan, eta Durangon saio berezi bat ere egin

genuen. Alex Sardui laguna dugu eta gugaz parte hartzera gonbidatu genuen. Baietz esan zigun eta oso polita izan zen. Jendeak oso pozik irten zuen kontzertutik. Baita guk ere. Beraz, hori oinarritzat hartuta zerbait egitea pentsatu genuen.

Zelako uda aurrelaster duzue?

Printzipioz, itxura ona du. Hainbat tokitatik deitu digute eta pozik gaude.

Luhartz osatzen dugunon asmoa plazetan jarraitzea da, jendeari entzunda eta guri gustatzen zaiguna eginda

Bigarren uda izango da betiko formatuko erromeriarik barik. Zelan zaudete?

Taldea gogotsu dago, edozer egiteko prest. Gauza bat da nik jarraitu gura izatea, baina beste bat taldeki-deek esatea: "lasai, Rafa, zuk gura duzuna egingo dugu. Edozertarako prest gaude".

Luhartz osatzen dugunon asmoa plazetan jarraitzea da, jendeari entzunda eta guri gustatzen zaiguna eginda. Hortxe egon da orain arteko gure arrakastaren gakoa, eta horrela jarraituko dugu.

UR urdaibai
Turismo aktiboa eta abentura

Kanoa/Kayak
Urdai Baiko itsasadarren jaitsiera kanoan
SUP - Stand Up Paddle

Tel.: 94 627 66 61 / 688 635 190
www.urdaibai.com info@urdaibai.com

HONTZA EXTREM
DENONIZAKO ABENTURA PARKEA

Tel.: 633 468 947
www.hontzaextrem.com

mendexa
ABENTURA PARK

ABENTURA PARKEA ETA TIROLINAK
Guztion neurriko zirkuituak

Tel. 688856283
info@mendexapark.com
www.mendexapark.com

“Bizikleta elektrikoari GPSa gehituta uneoro ikusi dezakezu non zabiltzan, galdu barik”

Otxandion iazko udatik martxan duen negozioan, Javi Axpek bizikleta elektrikoak alokatzen ditu ibilbideak egiteko

Javi Axpe Acera

Mendiko Bizikleta elektrikoak alokatzen ditu

OTXANDIO | 1976



MUGIKORTASUNA • J.D.

Javi Axpek bizikleta elektrikoak alokatzeko negozio bat martxan ipini zuen iazko udan Otxandion, eta bide onetik doa. Izan ere, laguntza txiki batez inguru zabalak bisitatu eta kilometro dezente egiteko aukera eskaintzen dute bizikleta elektrikoek. Orain, apustu berri bat egin eta bizikleta gehiago erosi du hastear dagoen uda sasoiari begira.

Zenbat bizikleta elektriko dituzu orain?

Hasieran bizikleta bi nituen eta lau alokatu nituen udara begira. Orain

hamar ditut eta nireak dira denak, erosi egin ditut. Bizikleta bi umeenak dira. Webgune bat ere sortu dut: www.axpeebike.com. Oraindino apustu serioago bat egiteko asmoa dut eta ea funtzionatzen duen.

Zein da bizikletak alokatzen dituztenen profila?

Asko kanpokoak dira, estatukoak. Bilbokoak eta inguruetaoak ere etortzen dira. Egia esanda, toki askotatik etortzen da jendea hona. Otxandiotik Barazarrera bidetan, Zeanuriko lurretan, badaude zehaztuetan eginiko etxola batzuk. Jendeak alokatu egiten ditu eta bete-

beterik egoten da beti. Han ostatu hartzen duten bikoteak nire bezerorik onenatarikoak dira. Egunpasetarako planak gura izaten dituzte eta bizikleta elektrikoak oso aproposak dira inguruak ezagutzeko.

Zer toki bisitatzen dituzte?

Gorbeian Otzarreta inguruko pagadietatik eginiko pasealdiak asko gustatzen zaizkio jendeari. Otxandio inguruan ere ibiltzen dira.

Bizikleta elektrikoek bizikletaren erabilera demokratizatu dute?

Baietz uste dut. Mundu guztia ibili daiteke. Familian eta seme-alabekin joan zaitezke. Umekin ere bai,

esanda, oso aproposa da eurentzat. Bizikleta elektrikoak adin guztietako jendeari zabaltzen dizkio atak. Urkiola bisitatzen doazena ere bezero potentzialak dira.

Bai, jakina. Bizikleta elektrikoak erraztasun handiak eskaintzen ditu han inguruan ibiltzeko. Toki asko daude gainera. Asuntza-Urkiolamendi-Saibigain ibilbidea segidan eta nekatu barik egiteko aukera eskaintzen dio mundu guztiari.

Zein da txanponaren beste aldea? Zeintzuk dira negozio honen zailtasunak?

Jendea jausten denean matxurak sortzen direla da alderik txarrena. Horrelako pare bat kasu egon dira eta buruko minak eragiten dituzte. Hau da, mantentze-lan dezente eskatzen du. Matxura txiki bat bada konpondu dezaket, baina handiagoak badira konpontzen eraman behar izaten ditut.

Bizikleta elektrikoak Asuntza-Urkiolamendi-Saibigain ibilbidea nekatu barik egiteko modua eskaintzen dio mundu guztiari

Galdu da inor bizikletan eta deitu dizu laguntza eske?

Galtzen dira, baina aldi berean ez dira galtzen. Hau da, Otxandion gatz da galtzea edonon zaudela ere, baina egia da nik esaniko bidetik inor ere ez dela ibiltzen. Baina, tira, ibilbide batetik irteten zarenean, seguruenik beste ibilbide batean sartuko zara. Baina neurri bat hartu dut erabiltzaileak galdu ez ditezen.

Zein da?

Bizikleta bati GPSa ipini diot eta bost zirkuitu gehitu dizkiot. Erabiltzaileak pantaila batean ikusten du ibilbidea zein den eta bera nondik dabilen. Orain hamabost egun ipini nion bizikleta bati. Joan zen asteburuan, Gasteizko lagun kuadrilla batek probatu zuen eta oso pozik geratu ziren. Bizikleta elektrikoari GPSa gehituta uneoro ikusi dezakezu non zabiltzan, galdu barik.

Zeanurin zehaztuetan eginiko etxolak daude eta han ostatu hartzen dutenak bezerorik onenatarikoak dira

bizikletako aulkian eserita. Behin Bilboko jubilatutako batzuek deitu zidaten. Otxandio inguruan urtegiko ibilaldia egin gura zuten eta bizikletak alokatu gura zituzten. Hasieran harritu egin ninduen, baina, egia

ARBIZU CAMPING

ARBIZUKO EKOKANPINA

www.campingarbizu.com
Tel.: 848 470 922
Jatetxerako erreserbak: 635 093 140

INGURUAZ GOZATZEKO LEKU ZORAGARRIA - ETXETXO BERRIAK ALOKAIRUAN

zintzilik
Emozioen laborategia

info@zintzilik.eus
Tel.: 652 752 474

www.zintzilik.eus
@zintzilik_emozioen_laborategia

TERRAZAK



LUPETZA

Askatasun etorbidea 17,
Durango
Tel.: 946 064 494

Bokatak eta errazioak. Txupitoak domeka eta jai egunetan.
Ordutegia: Astelehenetik barikura 8:30etik aurrera zabalik. Zapatu, domeka eta jai egunetan 9:00etatik aurrera zabalik. Domeketan 15:00ak arte.



SORGIN

Ibaizabal 4C,
Durango
Tel.: 946 811 811

Zatoz gure tabernako terrazara eguzkiaz goatzera. Gure kafe, konbinatu eta musikarik onenaren xarmari esker konpainiarik onenean gozatuko duzu momentua.



ARRIPU



Txibitena 9,
Durango
Tel.: 602 387 814

Gure berezitasuna tortillak dira, 16 zapore ditugu aukeratzeko eta denak primerako osagaiekin egindakoak, noski.



TXORIA NUEN MAITE

San Roke Kalea 17,
Durango
Tel.: 946 218 339

Egunero afariak, koktelak, bertoko artisau garagardoak, alkoholik bako koktelak,... Kanpoko terraza eta atzeko patioa berde berdeak.



AMALUR

Muruetatorre 5. blokea behea, Durango
Tel.: 692 150 199

Berezitasuna gildetan eta bermutetan.



COLLIN'S

Plateruen Plaza 11,
Durango

Collin's tabernan mojitoak eta beste hainbat koktel. Bermut ugari aukeran. Terraza zabala.



POL POL

Barrenkalea 19 (udaletxeko plaza), Durango
Tel.: 946 202 969

Gosariak, pintxoak eta errazioak asteburu eta jaiegunetan.

- TERRAZAK -



GORA-GORA

Arriluzea, 2
Durango
Tel.: 946 216 372

Aurtengo uda benetako izan dadila! Zatoz terraza betetzera, eta gure Gora &Go txiringito berria ezagutzera!



AI AMA

Josemiel Barandiaran
kalea 2 - Durango
Tel.: 946 232 240

Uda-giroaz gozatzeko terraza bikaina. Goizetik gauera egunero eta eguenetik domekara bazkariak eta afariak!



NAPOZT

Josemiel Barandiaran, 8
behea - Durango
Tel.: 946 004 086

Uda kalean bizi behar delako! Goizean gosariak, eguerdian pintxoak eta arratsaldean lagun arteko poteoa.



ABARKETERUENA

Iturritxo, 6 - Txanporta
plaza - Abadiño
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburueto menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.



INTXAURRE ELKARTEA

Balbino Garitaonandia
Plaza, Durango
Tel.: 946 818 070

Uztailean eta abuztuan zehar 11:00etatik aurrera zabalik.



OREKA

Dantzari, 5
Iurreta
Tel.: 630 149 417

Gosari bereziak eta momentuan egindako pintxoak.



VANCOUVER

Trañabarren, 9
Matiena
Tel.: 946 817 039

Pintxoak, domeketan rabak eta asteburuetoan pintxo morunoak.



ZERO

Andra Mari, 6
Durango
Tel.: 946 812 222

Zatoz eta gozatu kafe ona, gure askotariko pintxoak, asteburuetoan afariak, eta gure mojito eta gin-tonic bereziak.

- TERRAZAK -



TABERNA ZARRA

Trañabarren Etorbidea, 1
Abadiño.

Tel.: 946 812 012
685 765 979

Gure terrazara bazkaltzera, afaltzera edo trago bat hartzera etorri zaitezte! Egutegiko eguneko menuak eta asteburuetan menu bereziak. Bariku eta zapatu gauzez errazioak eta plater konbinatuak. Domeka eta jai egunetan rabak eta kroketak. Giro aparta!



HERRIA

Askatasun etorbidea, 28
Durango

Tel.: 946 810 513

Astelehenetik barikura goizeko 6etatik aurrera zabalik, zapatuetan 08:00etatik aurrera eta domeketan 08:30etatik aurrera. Pintxoak eta gosariak. Asteburuetan rabak. Giro polita! Zatoz!



ERROTA

Intxaurren kalea 54
Durango

Tel.: 946 216 021

Taberna zabalik dago 07:00etatik 23:00etara.

Gosariak, pintxoak, entsaladak eta ogitartekoak. Merendolak. Terraza ederra, Tabira auzoaren erdigunean.



OXFORD

Trañabarren 7,
Matiena

Tel.: 94 681 88 84

Kafe aparta, giro bikaina.



MOMOTXO

Durango Plaza, 12- Durango

Tel.: 946 030 791

Pintxoak, eguneko menua, errazioak.



IBAI-ONDO

Bixente Kapanaga z/g,
lurreta

Tel.: 946 202 157

Kafeak, pintxoak, rabak eta olagarroa galiziar erara.



GAUARGI

Dantzari 4 behea,
lurreta

Eramateko tortilla bereziak, bariku eta zapatu gauetan molleteak eta domeketan rabak.



KORTA TABERNA URIEN

Bixente Kapanaga 10,
lurreta

Tel.: 944 555 969

Gure terrazan egutegiko: gosariak, pintxoak, zizka-mizkak, etxeko pastelak, kafeak, irabiatuak,... Asteburuetan: bazkariak, kopak, mojitoak, irabiatuak, eskoziarrak, balentziarrak eta giro aparta. Martitzenetan itxita.

“Kanperrak daude modan, herri eta hirietara sartzeko aukera ematen dutelako”

Mikel Caravaning lurretako Mallabierna industrialdean dagoen karabanen denda da. Mikel Alvarez da enpresaren jabea. Turismo mota hau indartzen dabil gure inguruan

OPORRAK • JONE GUENETXEA

Karabanen mundua hazten dabil. Opor mota hau aukeratzen dutenen kopuruak gora egin du, etenik barik. Era berean, geroago eta herri gehiagok karabanen guneak egokitu dituzte turismoa bultzatzeko.

Udako sasoi hau denboraldi altua da karabanen enpresetan?

Orain ezer gutxi. Ia dena hartuta dugu. Gu irailean denboraldi berriagaz hasten gara.

Pandemiaren aurretik hona, igarri duzue aldaketa?

Jende berri asko hurbildu da karabanen mundura. Karabanak berriztera barik, lehenengoz datozenak dira. Batzuek alokatu egiten dituzte, proba egiteko. Erosleen artean, batzuek aurretik probatu izan dute, baina badaude asko alokatu barik ere erostera animatzen direnak.

Zergaitik aukeratzen dute opor mota hau?

Etxe edo hotel berean sartuta egon barik, opor mota honen aldeko hautua egiten dute, euren airera ibiltzeko.

“Karabanen salmenta ere nabarmen igo da. Karabana erosi, eta kanpin batean ipintzen du jendeak”

Zein da zuen bezereen profila?

Gaur egun ez dago profilik. Lehen, ume txikiak zituzten familiak ziren gehienak. Orain, askoz ere anitzagoa da.

Eskaintza handitu egin da. Zer dago modan?

Kanperrak daude modan, herri eta hirietara sartzeko aukera ematen dutelako. Mendian ere gehiago sartu zaitezke, karabanek muga



Mikel Alvarez
Mikel Caravaning
LEKEITIO | 1976

gehiago dituzte-eta leku batzuetara joateko. Bestalde, karabanen salmenta ere nabarmen igo da. Karabana erosi, eta ekainean, uztailean, abuztuan eta irailean kanpin batean ipintzen du jendeak, bigarren erresidentzia legez. Durangaldekoek, askotan, Nojara zein Landetara eramaten dute karabana. Beste batzuek, pare bat hilean kanpin batera eramaten, eta ez dute mugitu ere egiten. Gero, abuztuan, handik atera eta bidaiatzeko erabiltzen dute, Kataluniara, Andaluziara edo beste lekuren batera.

Geroago eta herri gehiagotan autokarabana guneak ipini dituzte.

Herri askok egin dute karabanentzako parkinak ipintzearen aldeko apustua. Udalek ikusi dute turis-

“Gehienak berotasun bila joaten dira, Andaluziara, Galiziara... Landak beti modan dagoen lekua da”

mo arloan badagoela hor profil bat modu honetan bidaiatzea gogoko duena. Horregaitik dabilza parkinak ipintzen, eta ez bakarrik herri

turistikoetan. Elorrioren eta Larrabetzun, esate baterako.

Kilometroak egiteko prest daudenak nora joaten dira?

Jende asko Europara joaten da. Herrialde asko oso ondo prestatuta daude karabanagaz joateko. Gehienak berotasun bila joaten dira, Andaluziara, Galiziara... Landak beti modan dagoen lekua da.

Hazkunde hau pandemiaren eraginez gertatu da?

Aurretik ere bazetorren, eta pandemiak bizkortu egin du goranzko joera hori. Europan oso errotuta dago, eta hona geroago heldu da.



SORTU EZAZU ZEURE ABENTURA!

SALMENTA - ALOKAIRUA - TAILERRA - PARKING

AUTOKARABANAK - KANPERRAK - KARABANAK

MALLABIENA N4 A INDUSTRIALDEA, 48215 IURRETA, BIZKAIA > TEL.: 944 74 12 38 > INFO@MIKELCARAVANING.COM > WWW.MIKELCARAVANING.COM

ALLUITZ MOTOR, S.L.

Alluitz, z/g 48200 DURANGO/Bizkaia
Tel.: 946 202 004 Faxe: 946 200 998
alluitz@otola.org · www.alluitzmotor.com







Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera




Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

 **anboto**



merkataritza gida sarean



anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatari gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)



'Chef Nature'

ANTZERKIA IURRETA :: Ekainak 18

Markeliñek sorturiko menu magikoa, familian gozatzeko

Markeliñek sorturiko *Chef Nature* obra ikusteko aukera egongo da gaur, Iurretako XV. Kalez-kale egitarauaren barruan. Aire zabalean dagoen jatetxea da Chef Nature, berezko ortuagaz. Mahaikideak berriro ere naturagaz konektatzeko aukera izango du, mugikorrek eta pantaila guztiak baztertuta. Menua magikoa, harrigarria,

terapeutikoa eta oso dibertigarria izango da, Zornotzako konpainiako kideek aurreratu dutenez. Menua elaboratzeko, Markeliñek bere sukaldean ohiko dituen osagaiak erabiliko ditu: erritmoa, keinuetan oinarrituriko antzerkia eta jolasa. Guztia gatz eta erotasun apur batez gatz onduta. Askondoko karpan, 18:30ean.

Ekainaren 18an

ELORRIO aurkezpena
'Oraingo kulturaren argiak eta ilunak' (Juan Bizente Gallastegik itzulia), 19:30ean, Arriola antzokian. Solasaldian jardungo dute Gallastegik, Sebas Gartzia eta Zorione Furundarenak.
'Oiz eta Anbotoren kerizpean' (Juan Bizente Gallastegi) liburua ere aurkeztuko dute.

BERRIZ dantza
'Errimak bi oinetan' (Haatik dantza konpainia), 19:00etan, eskolako patioan.

Ekainaren 19an

ABADIÑO antzerkia
'Lurrin minez' (MAuMa konpainia), 19:00etan, Errota kultur etxean.

DURANGO musika
'Durango Hiria' txistu kontzertua, 19:30ean, San Agustin kulturgunean. Xuacu Amieva&Dobra Asturiasko folk taldeak parte hartuko du. Silboberrik antolatuta.

IURRETA antzerkia
'Piraten istorio bat' (Erre Produkzioak), 13:00etan, Askondoko karpan.
'Bidearen amaieran' (Hortzmuga), 18:30ean.

IURRETA musika
Ekuru, 19:30ean, plazan.

MALLABIA bertsoak
Durangaldea uztabarrizten bertso zirkuitua: Iruri Altzerreka, Paulo Salterain, Unai Iturriaga, Ander Gerrikaetxebarria eta Onintza Enbeita, 18:00etan, plazan. Gai-jartzailea: Eider Gallastegi. Sarrerak 17:00etatik aurrera.

ZORNOTZA ipuinak
'Kattalinen bila' Miren Larrea ipuin kontalariaren eskutik, 12:00etan, Munarri gaztetxean. Sarreraren truke janaria batuko da Elkartasun Sarerako. Kanpoan barra eta pintxoak, 11:00etan.

Ekainaren 20an

DURANGO musika
Luhartz, 18:00etan, San Agustin kulturgunean.
Julene Azpeitia literatur lehiaketako sari banaketa, 12:00etan.

DURANGO aurkezpena
Berbaz, 3. zenbakiaren aurkezpena, 18:30ean, Sorginola gaztetxean.

IURRETA antzerkia
'Diberti-dantzak' (Deabru Beltzak), 13:00etan, Askondoko karpan.

IURRETA bertsoak
Unai Iturriaga, Eli Pagola, Miren Amuriza eta Eneko Abasolo 'Abarkas', 17:00etan, plazan.

MALLABIA musika
Arantza eta Pantxo, 12:30ean, frontoian.

MALLABIA jolasak
Paintballa umeentzat, 17:00etan, frontoian (12 urtetik gora).

Ekainaren 21ean

IURRETA musika
Miss Blue&Friends, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Ekainaren 22an

DURANGO aurkezpena
Berbaz, 3. zenbakiaren aurkezpena, 18:30ean, Bizenta Mogel liburutegian.

Ekainaren 23an

ELORRIO antzerkia
'Indi Jones eta bere laguna', 17:30ean, San Juan ermitan.
'Foc a la carta', 22:30ean, Kiroldegiaren alboan.

IURRETA musika
'Epa txiki' (Demode Quartet), 18:00etan, plazan.

MALLABIA jolasak
'Tramankulu', 18:00etan, parkean. (3-12 urte).

Ekainaren 24an

MALLABIA dokumentala
'Bideak', 17:30ean, Kontzejuzarrean. Aritz Ganboa artzaina eta Xabier Unanua zuzendaria egongo dira. Izena eman behar da, udaletxean edo kultur etxean.

ZORNOTZA musika
Haizetara: Klarineta eta jazz, 19:00etan, Zelaietako kontzertu gelan.

Ekainaren 24an eta 25ean

IURRETA erakusketa
Argazki zaharren erakusketa, 16:00etatik 20:00etara, Abadetxean.

Ekainaren 25ean

MALLABIA dantza
'Gelajauziak' (Kukai), 18:30ean, plazan.

MALLABIA ikuskizuna
'Erik eta Win' (BUhameak), 19:00etan, frontoian.

MALLABIA musika
Sua, 19:30ean, plazan.

ZORNOTZA musika
Haizetara: Satisfacshow, 16:30ean, Zornotza Aretoa.
Radio Kaizman, 16:30ean Amorebieta IV frontoian.
Botxo Boogies, 19:00etan, Zelaietako kontzertu gelan.

Zinema

:: **Abadiño**
ERROTA KULTUR ETXEA

· **Ahí viene Cascarrabias**
domeka 20: 17:00

:: **Durango**
ZUGAZA

· **Un tranquilo lugar 2**
barikua 18: 19:30/22:00

zapatua 19: 19:30/22:00
domeka 20: 18:00/20:15
astelehena 21: 18:00/20:15
martitzena 22: 18:00/20:15
eguztzena 23: 18:00/20:15

· **El inglés que cogió una maleta y se fue al fin del mundo**

barikua 18: 19:30/22:00
zapatua 19: 19:30/22:00
domeka 20: 17:15/20:15
astelehena 21: 18:00/20:15
martitzena 22: 18:00/20:15
eguztzena 23: 18:00/20:15

· **En un barrio de Nueva York**

barikua 18: 20:30
zapatua 19: 18:00/21:00
domeka 20: 17:15/19:15
astelehena 21: 18:30
martitzena 22: 18:30
eguztzena 23: 18:30

· **Ballerina**
domeka 20: 12:00

:: **Zornotza**
ARETOA

· **Cruella**
barikua 18: 19:30
zapatua 19: 19:30
domeka 20: 19:30
astelehena 21: 19:30

· **Félix y el tesoro de Morgäa**
zapatua 19: 17:00
domeka 20: 17:00

“Ez da estilo aldaketa bat, baina igartzen da beste ideia batzuekin eginiko diskoa dela”

Blanco y en Botella talde zornotzarra stoner eta blues doinu berriein esperimentatzen ahalegindu da 'La arena cayó' diskoan



MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Blanco y en Botella talde zornotzarra 'La arena cayó' diskoa kaleratu zuen martxoan. Bestelako doinuak probatu dituzte iazko itxialdian konposaturiko lanean, eta disko ilunagoa geratu zaielakoan daude taldeki-deak. Zuzenean defendatzeko gogoz daude orain, sasoirik onena ez dela onartu arren. Unai Sulibarriak (gitarra), Haritz Mirandonak (gitarra eta ahotsa), Oler Sacristanek (bateria) eta Julen Alberdik (baxua) osatzen dute taldea, eta azken honegaz berba egin du ANBOTOK.

Zelako harrera izan du disko berriak? Nahiko pozik gaude, zer gertatuko zen galdezka geunden eta. Nahi-

koa duda genituen, diskoa kontzerturik ez zegoen garai batean aterako genuelako, eta justu doinu aldaketa ere egin dugunez... Ez da estilo aldaketa bat, baina ikusten da aldaketa bat, bestelako ideia batzuekin eginiko disko bat dela. Batzuek esan digute gurago dutela lehengo Blanco y en Botella, baina gu pozik gaude.

Berriro grabatu duzue 'Por la carretera', Dientes de Lunako Aimar Cidegaz batera. Zergaitik?

Esperimentu bat egin gura genuen, orokorrean. Horretarako, abesti zahar bat hartu, eta eraldatu egin gura genuen, letrari eutsita. Dientes de Lunakoak lagunak ditugu, eta Aimarri proposatu

genion. Uste genuen bere ahotsagaz ondo geratuko zela abestia. Zirriborroa bidali eta baiezkoa eman zuen segituan. Hiru bider jo dugu Dientes de Lunagaz, azkena euren bigarren diskoaren aurkezpen kontzertuan.

Diskoan Leire Jauregibeitiak ere abestu du, *Sin mirar atrás* abestian. Kuadrillakoa da, eta aurretik ere egin izan ditu koroak gugaz. Baina oraingoan berak bakarrik abestea gura genuen.

Haritz taldekidea arduratu da diskoaren diseinuaz eta irudiak marrazteaz.

Diskoak dakarren liburuxkoan ilustrazio bana dago, abesti bakoitzeko esaldi batez. Diskorik

saltzen ez den sasoi honetan, eduki estra bat eman behar diozu entzuleari. Gainera, hauek eskuz eginda daude, eta horrek borobildu egiten du produktua.

'Tres paredes' Epa kaleratu duzue bigarren eta hirugarren diskoen artean. Estilo aldaketa bat igarri zitekeen bertan.

Bai, esan daiteke hor hasi zela aldaketa. Irteerarik eduki ez zuten abesti batzuk genituen grabatuta, desberdinagoak zirenak. Transizio moduko bat direla esan daiteke. Euskarazko ipuin baten moldaketa rockeroa zen abestietariko bat, bestea Raperu rapeatzaileagaz kolaborazio bat, eta hirugarrenak doinu stonerragoak

zituen; hau ez da ohikoa gure musikan. Itxialdian publikatu genituen, formatu digitalean baino ez. Ni ordurako material berria prestatzen nengibilen, eta ateratzeko momentu ona zela erabaki genuen. Lyric bideo batzuekin kaleratu genituen, eta aldaketa bat igartzen zen sonoritate aldetik. Esperimentu bat izan zen, eta gustura gaude emaitzagaz.

Zornotzako Bandagaz jo ditugun kontzertuak esperientzia polita izan dira; gogorra, egin dugun lanagaitik, baina polita

Apirilean Herriaren doinuak emaldia eskaini zenuten Zornotzako bandagaz batera. Zelako esperientzia izan zen?

Oso esperientzia polita izan zen. Gogorra, baina polita. Aritz Labrador Zornotzako Bandako zuzendariak proposatu zigun, 2019an. Birritan pentsatu barik baietz esan genuen, baina gero konturatu ginen zelako lana zuen atzetik. Gu ez gara "benetako" musikariak, eta bat-batean zuzendaria genuen, partiturak irakurtzen eta benetako musikariek. Urte bi hauetan hainbat bider atzeratu da ikuskizuna, tartean pandemia egon delako. Apirileko kontzertuetara elkarregaz entseatu barik joan behar izan genuen, egoeragaitik, eta egunean bertan, kontzertuetan, jotzean, zerbait desberdina egiten genbiltzala igartzen zen. Oso esperimentu polita izan zen.

Hurbileko etorkizunera begira, zer asmo dituzue?

Datorren guztiari baietz esango diogu, baina gure aldetik gehiago ari gara itxaroten. Kanta batzuk grabatuta ditugu, eta uda ostean singlea kaleratzeko asmoa dugu. Uda osterako, diskoa zaharkituta geratuko da eta abestiak horrela kaleratuta, gaurkotuta egoten jarraitzeko modu bat da.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com

liburudenda #salduenak

MIÑAN 7^o
Amets Arzallus & Ibahima Balde (Susa)

ARROZ UREZ 2^o
Mikel Antza (Txalaparta)

BIZIA MIN 3^o
Jon Ander Urkiaga (Luces de Gállico)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

R.P.S. 214/06 A. Urreta podólogo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85



Uda Kulturaz Blairen aurkezpena.

Uda Kulturaz Blai berria antolatu dute iazkoaren arrakastari eusteko

Ekainaren 26tik abuztuaren 28ra bitartean, 25 ikuskizun eta 28 sormen tailer egingo dira

UDA KULTURAZ BLAI • ARITZ MALDONADO
Iaz izandako harrera ona errepikatzeke asmoagaz, dozenaka kultur ekitaldi egingo dira Uda Kulturaz Blai programaren barruan. Aurtan, Durangoko artista eta sortzaileen parte hartzea handitu gura izan dute, eta, horrela, hainbatek euren azken sorkuntzak aurkeztuko dituzte; besteak beste, Bagara kolektiboak, Licenciado Vidrierak eta Ganso & Ciak. Antolatzaileek "kalitatezko programazio anitza" eskaini gura izan dute, eta Durangaldeko sortzaileez gainera, Euskal Herriko artista sorta ere etorriko

da Durangora uda honetan. Besteak beste, Ibil Bedik, Idoia Asurmendik eta Bulegok eskainiko dituzte emanaldiak.

2021eko edizio honetarako, bost gune atondu dituzte: Aurora Abasolo eta Benita Uribarrena parkeak, Ezkurdi, Tabira eta Platerueneke terraza. Euria eginenez gero, emanaldiak Landako Gunean, Kurutzia ikastolan edo San Agustin kulturgunean egingo lirakeke. Emanaldietarako sarrera doakoa izango da eta Arte eta Historia museoan edo Durangoko Udala martxan ipintzekoa

den aplikazioan egin daitezke erreserbak.

Umeentzako tailerrak

Emanaldiez gainera, umeentzako tailerrak egingo dira uztailean eta abuztuan. Besteak beste, Darío de Regoyosen lana ezagutzeko tailerra eta Bizenta Mogel bibliotekak antolatutako sormen tailerra egingo dituzte. Nobedade lez, musika familian gozatzeko tailerra ere egingo dute aurtan. Umeek izena eman beharko dute tailerretan parte hartzeko.

'Errimak bi oinetan', bertsoa eta dantza batzen dituen ikuskizuna

Haatik dantza taldeak ikuskizun berezia eskainiko du Berrizen; gaur da emanaldia, 19:00etan

DANTZA • A.M.

Bertso ariketak eta jokoak dantzara eramatea da *Errimak bi oinetan* emanaldia berezi egiten duena. Ikuskizunak zenbait garaitako bertsolarien errimak batzen ditu, eta, besteak beste, Sustrai Colinaren, Xalbadorren, Lazkao Txikiren, Aitor Mendiluzeren eta Uxue Alberdiren errimekin dantza egingo dute bost dantzarik. "Bertsolaritzaren soinua mugimendu garaikide bilakatzea da emanaldiaren hel-

buruetariko bat", adierazi dute. Amaiur Luluaga, Anne Jauregi, Iñigo Etxeberria, Irati Sorondo, Jon Arsuaga, Nagore Zabala eta Aiert Beobide dira dantzariak; azken honek zuzendu du obra, Unai Elizasugaz batera. Igelaren Bandak ipiniko dio musika ikuskizunari.

Sarrerak egonez gero, emanaldia hasi baino ordubete lehenago banatuko dituzte, Berrizko eskolako patioan. Ikuskizuna 19:00etan hasiko da.



Haatik.

Gai librean

"Altu kanteu!"

Ez dut garbi oroitzen "altu kantatzeko" esan zidaten lehen aldia. Bertso eskolako bigarren eguna edo izango zen. Gogoan dut, alabaina, hark utzi zidan zapore mikatza. Kantukideei zuzendua ere entzun izan dut eta beti utzi dit buruan bueltaka ibili zaidan arrastoa, ustezko aholkua aldebiko aiztoa izaki: alde batetik, zentzuzkoa da, izan ere, indargarria da arreta geureganatzeko era hori, eta entzuleak, inkontzienteki bada ere, segurtasun itxura ematen duenaren aurrean txalo jotzeko erraztasuna duela esango nuke. Gainera, norberak plazan dagoela hartzen duen gorpuzkerak, gure pausoaren pisuak, geure buruaren aurrean ere berresten du espazio hori hartzeko dugun eskubidea eta korrika alde egiteko dioskun barne boztzoa eman dezake.

Bestalde, nago aholku horrek bigarren zentzu bat hartzen duela arazuko bertsolari moldean sartzen ez diren



Leire Vargas Nieto
Sortzailea

gorputzei botatakoan, altu kantatzeko baimenik eman ez zaigunoi eta isilarazitako ahotsen oinordetza lepoan daramagunoi. Asimilazio ariketa izan daiteke ozen abesten saiatzea, bertsolaritza tradizionalera hurbiltzeko urratsa, kantari klase bakarra onartzen duena: gizon

Betiko ohituretan kabitzen ez diren gorputzei molde horietan sartzeko eskatzean dago tranpa

hegemonikoa, zeinaren ahotsa mikro barik ere entzungo den. Honek bazter uzten du, ordea, badaudela potentzia horrekin kantatzeko ezgai diren ahotsak, arrazoi ezberdinak medio.

Erraza da gogoratzea duela 50 urte ezinezkoa litzatekeela gaur plazan dabilzan askorentzako bertsolari izatea;

logikoa da ondorioa. Orain, ordea, zorionez, baditugu baliabideak beste ahots batzuk entzun daitezkeen edozein formako plazetan. Ahotsik indartsuenak ere ez luke areto handi batean bere kantua entzuterik lortuko, baina soinu ekipoek konpondu dute hori. Era berean, ez da "tranpa" ozen abesteko erraztasunik ez duenari mikroaren bolumena igotzea, adibidez. Betiko ohituretan kabitzen ez diren gorputzei molde horietan sartzeko eskatzean dago tranpa: zabalik uzten da atea, haren formak jende kategoria baten sarbidea baino baimentzen ez duela kontuan hartu barik. Eta are mingarriagoa da hori, arazoa guk geuk daukagula pentsatzera baikaramatza atearen markoarekin talka egiten dugunok. Benetako aukera berdintasuna edozein ahotske plazan egoterik izan dezan beharrezko baliabideak eskaintzean datza. Hori ez dago, ordea, tradizioa apurtuz oholtzara igotzen garenon esku soilik.



“Tabirakori diogun estimuak batu gaitu”

Orain aste batzuk Hilario Perezek eta Alicia Gomezek ez zuten imajinatuko lasterrera Tabirako klubeko presidente bihurtuko zirela

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Hilario Perez Meñica eta Alicia Gomez Legorburu buru dituen plataformak Tabirako saskibalo klubaren gidaritzaren hartuko du ekainaren 30ean, batzar orokorrak hala onartzen badu. Klubak presidente bi izango ditu, beraz. Hasieran, euren helburua ez zen zuzendaritzara sartzea, baina behin barruan dena emateko prest daudela diote.

Zelan batu zineten plataformara?

Hilario Perez: Azkenaldian ez dut lotura zuzenik izan klubagaz, baina banekien egoera zein zen: ez zela hautagaitzarik aurkeztu eta zailtasunak zeudela erreleboa topatzeko. Klubak batzar batzuk antolatu zituen egoera zein zen azaltzeko, eta eurretan egon nintzen. Gero, ziurgabetasun egoera horretan nire izenak irten zuen antza, proiektua lideratu zezakeen pertsona posible lez, eta hori proposatzeko deitu zidaten klubetik.

Alicia Gomez: Nire alabek klubean jokatu dute, eta gazteena oraindino ere badabil. Klubeko balioak eta lan egiteko modua beti gustatu izan zaizkit eta ordezkoak topatzeko zailtasunak zeudela jakitean, deitutako batzarretara joan nintzen, esateko zutena entzutera. Eta, tira, azkenean plataformako kide bat gehiago izaten amaitu dut. Azkenean, klubetik urteetan

jaso dudana bueltatzeko modu bat da.

Zuen bizitzako zein puntutan hartu zaituzte plataformara batu eta presidente izateko proposamenak?

A.G.: Hasieran ez nuen plataforma batean edo zuzendaritzan egoteko helbururik. Ahal nuen neurrian laguntzea zen nire helburua. Baina behin barruan sartuta, ahal dudana ematen ahaleginduko naiz.

H.P.: Nire bizitzako une honetan hainbat konpromiso dut. Deustuko unibertsitatean ikasketak egiten nabil eta Durangoko Jaizale txistulari elkartearen presidenteordea naiz. Horrez gainera, besteak beste, JAED elkartearen laguntzen diot batzuetan, eta maratoniak egiten ere banabil. Testuinguru horretan, denbora ateratzea konplikatu da. Egoera aztertu eta Tabirako gidatzeko egokia iruditzen zitzaidan eredu baten zirriborroa idatzi nuen. Landako Kiroldegian deituriko batzar batean nire ideia hori azaldu zen. Batzar horren helburua argia zen: ezin zela batzar hori amaitu plataforma berririk barik. Nire proposamenak harrera ona izan zuen eta ordubete baino lehenago zuzendaritza baterako plataforma bidean zegoen. Gerora batzarrak egin ditugu, elkar hobeto ezagutzeko eta karguak erabakitzeke.

Zeintzuk dira aipatu duzuen eredu horren goiburak?

H.P.: Zuzendaritza zabala da. Sail bakoitzean arduradun bat baino gehiago egongo da eta elkarlana eta dibertsifikazioa bilatuko ditugu. Gidalerro orokor batzuen barruan, sail bakoitzak autonomiagaz lan egitea ere gura dugu. Honen guztiaren helburua da lanean gozatzeko ahalegintzea, lan horregaz gogaituta ez amaitzea. Eta filosofia horren barruan sartzen da klubak presidente bi izatea ere.

A.G.: Nire ustez, sail bakoitzean lagun bat baino gehiago egoteak lagundu egingo du kudeaketan. Ez da ahaztu behar azkenean boluntario talde bat garela. Ikusi egin behar

zelan irteten duen. Nire lehenengo esperientzia izango da kirol arloko zuzendaritza batean.

H.P.: Ekainaren 30eko batzarrak bere oniritzia ematen badio, horrela funtzionatuko dugu.

Zer iritzi duzue zuzendaritza berriko kideei buruz?

H.P.: Oso talde kompetentea eta arduratsua da, bakoitza bere arloan jantzia. Batzuek lotura bat dute klubagaz, eta beste batzuek iraganean izan dute. Batera zein bestera, Tabirako estimatzen dugu eta horrek elkartu gaitu. Batzuk aurretik ezagutzen nituen eta beste batzuk ez. Esaterako, Alicia ez nuen aurre-

tik ezagutzen eta, egia esanda, oso hartu-eman ona dugu.

A.G.: Bai, egia da, hartu-eman ona dugu. Pertsona aktiboa da eta kluba barrutik ezagutzen du. Lan bikaina egingo duela uste dut. Plataformako batzuk aurretik ezagutzen nituen eta beste batzuk ez. Oraindino batzar gutxi egin dugu, baina sententzioak onak dira. Apurka-apurka hartu-eman estutzen joango gara. Hilariok dioen moduan, Tabirakori diogun estimuak batu gaitu.

Joango direnekin batzar bat baino gehiago izan duzue. Zelan joan dira?

H.P.: Oso emankorrak izan dira. Orain arte presidente izan den Ina Mendiberi eta bere zuzendaritzari egin duten lan guztia errekonozitu gura diet. Ohiko kontuetan gainera, pandemia egoera kudeatzea egokitu zaie. Erabakiak hartzea oso gatxa den sasoia izan da. Eta hartu dituzten erabakiak hartu zitezkeen onenak izan dira. Besarkada bana bidaltzen diet denei.

Zer helburu duzue hurrengo denboraldira begira?

H.P.: Eguneroko ohiko lanez gainera, erronka berri batzuk ere etorriko dira. 2021-2022 denboraldian, 50 urte beteko dira Cafés Baqué enpresagaz hartu-eman dugula. Baqué familiak urte hauetan guztietan eman diguna bueltatzeko, gogor lan egitea egokituko zaigu. Gainera, nire ustez, Baqueren ekarpena ez da saskibaloira bakarrik mugatzen, herriko arlo askotara baino. Sinergia horiek lantzen ahaleginduko gara beste elkarteekin, eta ea zelan irteten duen.

Erronka asko dira. Pilak kargatuta dituzue?

H.P.: Bai, jakina. Orain aste batzuk honako galdera hauek egin nizkion neure buruari: Tabirakoren presidente izan gura duzu? Ez. Tabirako desagertzea gura duzu? Ez. Orduan, aurrera egitea erabaki nuen eta orain prest nago klubaren alde lan egiteko.

A.G.: Nik ilusioz aurre egiten diot etapa berri honi. Klub historiko honek merezi duena emateko prest gaude, ni zein plataformako guztiok.



Ekainaren 30etik aurrera zuzendaritza hartuko duten plataformako kideak.

Jaitsiera fasean urteko mailarik onena erakutsi eta gero, Durangoko Kulturalak Hirugarren Mailan jarraituko du

Azken bederatzi partiduetan lau garaipen eta bost berdinketa lortuta, mailari eusteko behar beste puntu lortu ditu



Urgatzi taldearen aurka 1-0 irabazita amaitu dute denboraldia.

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Aurten, Durangoko Kulturalak estuasunak igaro ditu Hirugarren Mailari eusteko, baina, azkenean, istorioak amaiera ona izan du eta jokalaria oporretara lasai joateko moduan daude. Joan zen asteburuan, jaitsiera faseko azken partiduan, berdinketa bat nahikoa zuen helburua lortzeko, eta 1-0 menderatu zuen Urgatzi taldea etxean.

Josu Gallastegik sartu zuen partiduko gol bakarra, lehenengo zatian. Jaitsiera fasean lorturiko hirugarren gola izan zen. Markagailuan aurrea hartzeak lasaitasuna eman zion taldeari eta gol gehiago sartzeko aukerak izan zituen. Baina ez zuten asmatu eta azken arte ezin izan zuten arnasarik lasai hartu.

Kulturalak gol gutxi sartu ditu jaitsiera fasean, baina oraindino gutxiago jaso ditu: bi baino ez azken bederatzi partiduetan. Guztira, lau garaipen, bost berdinketa eta porrotik ez. Azke-

Durangoko Kulturalak gol bi baino ez ditu jaso azkenengo bederatzi partiduetan

nean, partidua amaieran Jon Gonzalez 'Peli' entrenatzaileak esan zuen moduan, "merezita" lortu dute mailari eustea. Orain atsedean hartzeko ordua da, datorren denboraldia diseinatzen hasi aurretik.

Bidezabalek atletismoaren elitean ospatuko du sortu zeneko 40. urteurrena

ATLETISMOA • J.D.

Bidezabal klubeko emakumeen taldeak estatu mailako Lehenengo Mailan jarraituko du hurrengo denboraldian. Eskubide hori irabazi zuen joan zen asteburuan, Monzon herrian (Huesca) lehiatuko azken jardunaldian. Durangoko klubak 40 urte egingo ditu hurrengo denboraldian eta atletismoaren elitean ospatuko du urteurrena.

Bidezabaleko emakumeek 1995ean lortu zuten estatu mailako ligetarako igoera. Harrezkero ez dira jaitsi eta 25 urte daramatzate elitean.


Aurtengo ligan 40 atleta aritu dira Bidezabalen partetik, eta euretako gehienak, %90 inguru, bizkaitarrak dira.

Jokaldia

Zuengatik!

Joan zen asteburuan Espainiako klubetan ligan, 23 urtez azpiko Europako txapelketara joateko eskatzen duten marka lortu nuen 3.000 metroko oztopodun proban. Gainera, 23 urtez azpiko Espainiako inoizko bigarren markarik onena izan zen, eta Euskadiko absolutu mailako errekorra hautsi nuen. Ni neu ere guztiz sinetsi ezinik nago oraindik.

"Kirol hau oso zaila da. Oso gogorra da. Eta zu heldu zaren lekura iristea oso zaila da. Inongo lesiorik gabe maila fisiko oso on batera. Aprobetxatu". Duela gutxi hori esan zidaten, oso urduri nengoen egun batean. Eta egia esan, esaldi horrek asko transmititu zidan. Domekan, lasterketa aurretik, hori baino ez nuen izan buruan. En-



June Arbo Sarriugarte
Korrikalaria

"Joan zen asteburuan Europako txapelketara joateko gutxieneko marka lortu nuen 3.000 metroko oztopodun proban"

"Entrenamenduetan egindako lan guztiagatik egin nuen korrika. Horrela ateratzen, beldur barik"

trenamenduetan egindako lan eta esfortzu guztiagatik egin nahi nuen korrika. Eta horrela ateratzen proban parte hartzera, beldur barik, eta disfrutatuz.

Azkenaldian bazirudien gauzak ez zirela nik nahi bezala ateratzen ari eta Leonera entrenatzen etortzeak ez zi-

dala bere fruituak oso osoan ematen. Baina pazientzia izatea ezinbestekoa da kirol honetan.

Gehiago luzatu barik eta agurtu aurretik, eskerrak emateko hitz batzuk idatzi nahi nituzke: asteburuan zorion mezua bat idazteko edo dei bat egiteko denbora hartu zuten guztiei. Egunero nire alboan dagoen jende guztiari, urrutitik nire pausoak jarraitzen dituzten guztiei, eta modu batera edo bestera animatzen eta eusten nauten guztiei. Nola ez, beraien denbora oparitu didaten guztiei. Eta etxea non dudan egunero gogorarazten didatenei.

Nire sare sozialetan esan nuen bezala: modu batera edo bestera, momenturen batean bide honen parte sentitu diren eta sentitzen diren guztiei. Zuengatik!

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



 Smurfit Kappa

DURANGALDE



Urkiolako Santutegia

Urkiolako Parke Naturalera doazen bisitariek beharbada ez dute jakingo informazio hau. Urkiolako Santutegiko teilatua uren banalerro bat osatzen du: ezkerreko teilatu-hegalean jausten diren urak Kantauri itsasora joango dira, eta eskumako hegalean jausten direnak Mediterraneoara.

KO TXOKOAK!

Vulkanoren iturria

Cuando vamos a Otxandiano, Santa Maña egunian, tomaremos chocolate, sonbreruaren gainean abesten dute askok. Otxandiarrek, ostera, sonbreruaren gainean barik Vulkanoren aurrean esaten dute. Suaren jainkoaren estatuak errementariak gogoratzen ditu. Estatuak berak errementarien kurrিকা du eskuan.





ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// AUKERA

BIXENTE KAPANAGA: 2 logela, komuna eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. **CEE= G. 125.000 €**

IURRETA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du. Lehen mailako materialekin berriztatua. **C.E.E.= E. 97.500 €**

ATXONDO: Ikuspegi ederrak mendietara. Argitsua. Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea, despentsa eta egongela. Terraza. **C.E.E.= G 130.000 €**

IURRETA: MASPE: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailu berria. Eguzkitsua. Berriztatua. **C.E.E.= E. 140.000 €**

BERRIZ: 74 m². 3 logela, komuna dutxagaz, sukaldea eta egongela. Terraza. Igogailua. **C.E.E.= F ALOKAIURUAN, EROSTEO AUKERAGAZ. 110.000 €**

ZALDIBAR: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Berriztatua. **C.E.E.= E. Alokairuan, erosteko aukeragaz. 99.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

JUAN OLAZARAN: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E.= B. 323.000 €**

MATIENA: SOLAGUREN. Erdialdean. Argitsua. 3 logela, komuna eta sukaldea handia. Igogailua. Ganbara. **C.E.E.=G. 120.000 €**

ARTEKALEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela handiak. Terraza. Trastelekua. **C.E.E.=F 198.000 €**

MIKELDI: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. **CEE= E. 155.000 €**

MASPE: 126 m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Ganbara. Garajea. **C.E.E.= E. 250.000 €.**

GARAI BASERRIA: 237m². 15.624 m²-ko lursaila. **C.E.E.=G. 500.000 €**

J.M. ALTUNA: 3 logela, komuna, egongela eta sukaldea. Ganbara. **C.E.E.=G. 210.000 €**

ERROTARITXUENA: 2 logela, 2 komun, egongela handia eta sukaldea. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E.=E 265.000 €**

IURRETA: Apartamentua. Logela, komuna, sukaldea, egongela eta eskegitokia. Ganbara eta garajea. **C.E.E.= E. 160.000 €.**

IURRETA: DANTZARI. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E.= F. 140.000 €**

DURANGO: Etxebizitza altua. Eguzkitsua. Argitsua. 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Igogailua. Jantzia. **C.E.E.=F 145.000 €**

ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E.=G 178.000 €**

SAN INAZIO: 3 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. **C.E.E.= F. 226.000 €**

EZKURDI: 175 m². 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E.=F. 350.000 €**

MATIENA: ESTREINATZEKO. (Tasatua) 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela handia. Garajea eta trastelekua. **C.E.E.= A. 210.000 €**

IURRETA: MASPE: 3 logela eta komuna. Terraza. Igogailua. Berriztatua. **C.E.E.=F 160.000 €**

F.J. DE ZUMARRAGA: 4 logela, komuna eta egongela terrazagaz. Eguzkitsua. **220.000 €**

KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. BERRIZTATUA. **C.E.E.=G 186.000 €.**

ABADIÑO: 1.000 m²-ko lursaila, eraikitzeko baimenagaz. **250.000 €**

EUBA: Berriztatua. 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ikuspegi ederrak. **C.E.E.=E 147.600 €.**

MAÑARIA: Etxebizitza eta atikoak. Estreinatze. **125.000 €**

BERRIZ. BIDEGAIN. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E.= F. 205.000 €**

// LOKALAK ETA GARAJEAK SALGAI

F.J. ZUMARRAGA: Alokairuan / salgai. 80 m². Izkina bi kaletan. Dena da erakuslehoia. Oso komertziala.

F.J. ZUMARRAGA: AUKERA. 114 m². SALMENTA **175.000 €**

ASK.ETORBIDEA: Garaje itxia. **24.000 €**

ASK.ETORBIDEA: 8.000 €-tik aurrera.

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantziagaz eta egongela.

DURANGO: Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.

DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

MAÑARIA

KIRIKIÑO KALEA: 3 logela, komuna eta sukaldea. Balkoia. Igogailua. Argitsua.

ABADIÑO

ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ

ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

DURANGO: 2.020 m²-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

ATXONDO: AXPE. Baseri ederra salgai. Berriztatze. Kokapen izugarria.

ELORRIO: Araunas auzoa. Baseri eder bat eraikitze. 10.000 m². Ikuspegi izugarriak.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

MAÑARIA: Baserría salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO: Aldape auzoa. Baserría, berriztatze. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserría. Berriztatze. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzia. Estreinatze.

//BULEGOAK ALOKAIURUAN

ABADIÑO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIURUAN


Alde Zaharrean, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO



75 m²

MONTEBIDEO: 75 m². Egongela, sukaldea, 3 logela eta komuna. Barrualdea (Hegoa). Eraberritze integrala behar du, EZIN HOBEA NORBERE GUSTURA JARTZEKO. Leku paregabea.

C.E.E.=G. 110.000 € Negoziazarria.

ABADIÑO




2 logela

79,7 m²

ITURRITXO: 16 urteko antzinatasuna. 79,7 m². Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, eta 2 komun. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Banakako gas naturala. Argitsua. (Hegoalde) Igogailua. Ezin hobea. 14,05 m²-ko garajea, 4,63 m²-ko trastelekua eta 11 m²-ko ganbara barne. Leku onean.

212.000 € C.E.E.=Bidean

IURRETA



68,62 m²

3 logela

ZUBIAURRE: 68,62 m². 3 logela, egongela, sukalde jantzia eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ekialdea/ mendebaldea) Igogailua. Kontzertazio egoera onean. Leku onean. AUKERA.

150.000 € C.E.E.=F

DURANGO



118 m²

3 logela

MONTEBIDEO/EZKURDI: 118 m². Egongela, sukaldea, jangela, 3 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar-mendebaldea) Argitsua. Leku onean kokatua. Igogailua. EZIN HOBEA NORBERE GUSTURA JARTZEKO.

229.000 € C.E.E.=E

ZALDIBAR



2 Logela

84 m²

EUSKAL HERRIA KALEA: 10 urteko antzinatasuna. Egongela, sukalde jantzia. 2 logela, 2 komun eta eskegitokia. Balkoia. Banakako gas naturala. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ipar-mendebaldea, hego-mendebaldea) Argitsua. Igogailua. Ezin hobea. 18 m²-ko garaje itxia. Leku onean kokatua.

219.000€ C.E.E.=E

OTXANDIO



3 logela

87 m²

MAINERROTA PLAZA: 3 logela, 2 komun, egongela eta sukalde jantzia. Balkoia. Banakako gas naturala. Etxe osoak kanpora ematen du. (ekialde-mendebaldea) Argitsua. Ezin hobea. 16 m²-ko garajea eta 7 m²-ko trastelekua. (kalera ematen du). Leku onean kokatua.

169.500 € C.E.E.=Bidean

//DURANGO

BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Igogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 288.000 € / E.E.Z=F**

FRAY JUAN DE ZUMARRAGA: 3 logela, sukaldea, egongela, bulegoa eta komuna. **220.000 € / E.E.Z=G**

GOIENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **155.000 € / E.E.Z=G**

KOMENTU KALEA: 4 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela balkoiagaz, bainugela eta komuna. **LEHEN 160.000 € / ORAIN 140.000 € E.E.Z=G**

MURUETATORRE: 2 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 bainugela. Igogailua. Ganbara eta garajea. **238.000€ E.E.Z=E**

SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**

SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Igogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**

SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitze. 600 m²-ko lurzorua. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**

TXATXIENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 390.000 € / ORAIN 375.000 € / E.E.Z=E**

TXIBITENA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Ganbara eta garajea. **250.000 € / E.E.Z=E**

//ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Igogailua. Garajea eta trastelekua. **170.000 € / E.E.E.=BIDEAN.**

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 € / E.E.Z=F**

MURGOITIO AUZOA: Berreraikitze. baserría lurzoruagaz. **290.000 €**

//IURRETA

FAUSTE AUZOA: Baserría. 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Ganbara. Lurzoruagaz. **300.000 € / E.E.Z=G**

OROZKETA AUZOA: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**

//MAÑARIA

KIRIKIÑO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. **150.000 € / E.E.Z= BIDEAN**

//OTXANDIO

ARTEKALEA KALEA: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. **60.000 € / E.E.Z=G**

GONBILAZ AUZOA: Baserría. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **350.000 € / E.E.Z=BIDEAN.**

//ALOKAGAI

Etxebizitza, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.

Eskelak jartzeko: 946 816 538
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 18 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 19 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

09:00-13:30

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

BAZAN DIAZ Urbarri 5 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO

JAIO-ABENDIBAR Errekakale 6. - ELORRIO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

DOMEKA, 20 · 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA 21 · 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 22 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 23 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 24 · 09:00-09:00

ETXEARRIA Montevideo etorb. 2. - DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEO 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA
Ermodo, 11 DURANGO /
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.



Zorionak, **Maryoga!** Musu handi bat gure yoga irakasle faboritari! Pilo bat maite zaitugu! Zure kuadrillako tiabuenak.




Ekainaren 19an **Aunitz Uberuaga Aramburuk** urte 1 egiten du. Zorionak, Aunitz, gure etxeko poztasuna zara. Mosu handi bat amama da amatxun partez.



Zorionak gure musikari gustukoenari! Durangotik Vienara, distantziatik bada ere, 27 kilo mosu zuretzat! Askok maite zaitugu! Zure kuadrillako tiabuenak.



Zorionak, **Lizar!** Ekainaren 15ean 8 urte egin zenituen. Ze handi egin zaren. Muxu handi bat etxekoan partez.



Zorionak, **Maitetxo!** 27ak garagardoa eskutan ospatukuz! Gora ezpain gorrien klubak! Askok maite zaitugu! Zure kuadrillako tiabuenak.



Zorionak, **Txabar Barruetabeña.** Itzelean maite zaitugu. Mosu bat.



Zorionak gure etxeko neska handiari! 5 urte egiten dozuzan honetan, esan ahal dogu familia ez jakola bakarrik odolekoari deitzen! Betidanik eta betirako! Mosu haundi haundi bat eta 5 belarri tirekada, printzesa! Askok maite zaitugu, ilargiraino eta bueltan!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 24° / 16° ☁

ASTELEHENA ↓ 19° / 13° ☁

EGUAZTENA ↓ 20° / 11° ☁

DOMEKA ↓ 23° / 14° ☁

MARTITZENA ↓ 17° / 12° ☁

EGUENA ↓ 24° / 11° ☁



clínica dental hartz klinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

“Proiektu txikia sortu gura izan dugu, gure filosofiagaz bat datorrena”

Markelek eta Berenicek sorturiko proiektua da Belaze zapoak. Kuban ezagutu zuten elkar eta baserriatik atera gura dute bizimodua. Elorrioko Zenita auzoan bizi dira orain 9 urtetik hona



Berenice Lopez Reyes
MEXIKO DF | 1989

Markel Garaizabal Buldain
ELORRIO | 1988

Belaze zapoak

ELORRIO • AITZIBER BASAURI

Sasoiko ortuari ekologikoak, landako oiloen transgenorik bako arrautzak, fruta eta irasagarra saltzen dute baserrian bertan. Horrez gainera, jogurt eta gazta fresko ekologikoa saltzen dute Durangaldeko hainbat saltokitan. Berenicek eta Markelek euren bezeroeri produktu eskaintza anitza ematea dute helburu (@belazezapoak).

Baserritik bizi gura duen bikotea zarete. posible da baserritik bizimodua ateratzea? Apustu handia izan da?

Markel: posible da, bai, beti ere lurrak edo baserria badituzu. Horrela ere gatz da, baina, bestela, ia ezinezkoa da inbertsioari aurre egitea. Apustu handia izan da, bai.

Zerk erogan zaituzte Belaze zapoak proiektua martxan ipintzera?

Markel: Baserrian hazi eta bizi izan naizen arren, inoiz ere ez dut irtenbide profesional lez ikusi. Berenice etorri zenean, eta Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietako ikasketak amaituta, aukera planteatu genuen. Apurka hasi ginen, pausoz pauso, eta gustura sentitu gara: ortuari otzarekin hasi ginen. Behiak ipini genituen, eta okela saltzen hasi ginen. Orain zortzi hilabete esnekiekin hasi gara.

Berenice: Ortuariekin hasi eta gutxira, Mexikora joan ginen. Han egoniko urte bietan hainbat proiektu ikusi genuen. Bueltan gure aukerak aztertu genituen, eta Euskal Herriko ekoizle piloak ezagutu genuen.

Oso lotua da baserria?

Markel: Egun osoko lana da, bai. Baina, aurrera begira, gure espazioa izatea da ideia. Produktuaren

Produktuaren eraldaketa osoa gure esku izateko proiektu txikia gura genuen, gure filosofiagaz bat zetorrena

eraldaketa osoa gure esku izateko proiektu txikia sortu gura izan dugu, gure filosofiagaz bat datorrena.

Berenice: Ez dut ordutegirik, baina

bai nire momentuak. Diru apur bat atera eta norbere burua hornitzeko aukera izatea ekarpen handia da.

Aldatu egin dira kontsumo ohiturak?

Markel: Bai. Harrituta gaude zenbat jende datorren baserrira. Denda ipini genuen, ordutegi batez, eta asko errespetatzen dute. Bestalde, jogurta beirazko botiletan saltzen dugu, bueltan jaso eta berrerabiltzeko. Bezeroek asko eskertu dute.

Berenice: Oso pozik gaude dugun harreragaz, oso eskertuta ere bai.

OKm kontzeptuaren alde egin duzue.

Markel: Bai. Lurragaz loturiko abeltzaintza egin gura dugu, gure lurrak emandako mailan. Behiei pentsu ekologikoa ematen diegu, baina bedarra jaten dute gehien. Pauso garrantzitsua da baserrien bideragarritasuna bideratzeko. Geroago eta gehiagok eman dute pausoa. Ekoizleek prezio duin batean saltzeko indarra ematen du salmenta zuzenak.

Salmenta zuzena pauso garrantzitsua da baserrien bideragarritasuna bideratzeko

Zein da Belaze zapoak proiektuaren helburua? Noraino heldu gura duzue?

Berenice: Nor naizen ez ahazteko era bat da. Ez dakit nora helduko garen. Eskolekin eta familiekin bisitak egiteko aukera lantzen gabilta orain.

Markel: Askok dira helburuak. Bizimodua ateratzea, baserriko lurrak ahalik eta ondoen zaindu eta mantentzea, kalitatezko produktua eskaintzea, animalia-ongizatea, baserriari buruzko beste ikuspuntu bat ematea, apur bat modernizatzea. Bidea egiten gabilta. Jorrazteko bide berriak daudela uste dugu.

Berenice, maitasunak ekarri zintuen Elorriora...

Bai (barrez). Eta lurragaz sorturiko hartu-eman ahaltsu honek ere bai. Hasieran, unibertsitatean lez sentitu nintzen, egunero zerbait ikasten nuen: marmelada egiten, baba eriten, Nafarroara joan ginen txerria hiltzen... Eta ikasten jarraitzen dut. Paisaia, eguzkia, mendia... dena iruditu zitzaidan interesgarria, harriarria. Hemen geratzea erabaki nuenean euskara ikasi nuen.

Lau-hortza

Martin Loizate
Sarrionandia
Ikaslea



Gerezi garairik ez

Uda heltzean den honetan gustuko ditut loran dauden zuhaitzak, goizeko txorien eta ilunabar beroetako igelen kantak, udaberriak inbaditu dituen errotonda eta espaloiak. Gustatzen zait hamaka batean etzatea gerezi bi belarritik dilindan eta esatea: “beroa baino okerragoa da hezetasuna”.

Baina souvenirretako postalek eta garagardo iragarriek idealizatzen duten sasoi honek baditu milaka aurpegi: hurrengo ikasturteko ikasle pisua ordaintzeko hondartzako tabernan irribarre profesional batekin Radler bat zerbitzatu dizunarena, edo langile finkeen oporraldiak betetzeko eskualdeko fabrika batean irailera arteko kontratua sinatu berri duen gaztearena, batzuk aipatzearen.

Irratian entzun dut Bartzelonan bere buruaz beste egin duela Segundo Fuentesek, alokairua ezin ordaindu eta etxegabetezera zihoazenean. Izango dute gertatuaren berri opor egunetan pisu hori okupatu duten turistek? Publikatu al du Espainiako Bankuak turismoaren eta prekaritatearen arteko erlazioaren estatistikarik? Kontuan hartuko dituzte egungo langabezia tasa edo zerbitzu publikoen egoera autopsia egin eta heriotza zerk eragin duen zehazterakoan?

Baliteke apirila izatea hilabeterik krudelena, baina esango nuke kapitalismoaren egunerokotasun nihilista udako hiletan bistaratzen dela beste inoiz baino gordinago.

Eskerrak gereziak baditugun oraindik, gerezi garaien zain gauden bitartean.

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

sukia
Zure etxean zaude Estás en tu casa

946 46 20 41
www.sukia.com